



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko apirilaren 20a

35. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Aholku emateko txostena, sustapen jarduerari buruzko araudi indardunak enpresek foru lurraldetik alde egin ez dezaten ziurtatzeko ematen duen bermeari buruzkoa, Comptos Ganberak egina ([2. or.](#)).

G saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

Aholku emateko txostena, sustapen jarduerari buruzko araudi indardunak enpresek foru lurraldetik alde egin ez dezaten ziurtatzeko ematen duen bermeari buruzkoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak egindako aholku emateko txostena, sustapen jarduerari buruzko araudi indardunak enpresek foru lurraldetik alde egin ez dezaten ziurtatzeko ematen duen bermeari buruzkoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Aholku emateko txostena, sustapen jarduerari buruzko araudi indardunak enpresek foru lurraldetik alde egin ez dezaten ziurtatzeko ematen duen bermeari buruzkoa, Comptos Ganberak egina**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Sustapen jarduera (3. or.).
- III. Ondorioak (4. or.).
- IV. Europako Erkidegoko Zuzenbidetik datozen mugak (6. or.).
 - IV.1. Laguntzen bateraezintasuna, printzipio orokorra (7. or.).
 - IV.2. Bateraezintasunaren printzipio orokorren salbuespenak (7. or.).
 - IV.3. Laguntzak bateraezinak direla deklaratzeko prozedura (8. or.).
 - IV.4. Jakinarazteko betebeharretik salbuetsirik dauden laguntzak. Laguntza horizontalak eta eskualdekoak (9. or.).
- V. Sustapenari buruzko araudia Foru Komunitatean (11. or.).

V.1 Nafarroak arlo honetan dituen eskumenak (11. or.).

V.2. Industriaren arloko sustapenari buruzko araudia (12. or.).

V.3. Nekazaritzaren arloko sustapenari buruzko araudia (18. or.).

VI. Sustapenari buruzko araudia Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateetan (19. or.).

I. eranskina. Estatuko laguntzak, xede horizontalekoak nahiz eskualdekoak, baimentzeko kategoriak salbuetsi eta ebaluatzeko erregelamenduak, jarraibideak eta zedarripenak (22. or.).

II. eranskina. Sustapenari buruzko araudia Foru Komunitatean (31. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2004ko apirilaren 26an eginiko bilkuran, erabaki zuen, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak eskatuta, Nafarroako Comptos Ganberari eskatzea aholku emateko txosten bat egin dezan, "Sustapen jarduerari buruzko araudi indardunak enpresek foru lurraldetik alde egin ez dezaten ziurtatzeko ematen duen bermeari" buruzkoa.

Honako hau adierazi zuen Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak bere eskaeran: "zenbait hila-betetatik hona albisteak izan dira estatuko establezimenduak utzi eta lansari kostu txikiagoak dituzten herrialdeetan kokatzera jotzen duten enpresen inguruan.

Egoera honen berritasuna da emaitza kontu positiboak dituzten enpresetan gertatzen hasi dela.

Abandonu horiek modu askotan gertatzen dira, eta haietako batzuetan lanpostu berriak lortzeko funtsak sortzen dira.

Nafarroan ere gertatu da horrelako kasuren bat, industriaren munduan izan ezik hezkuntzarenean ere, nahiz eta kasu horretan ez izan lekualdatzea, jarduerari uztea baizik.

Bizi maila baxuagoko herrialdeak Europar Batasunean sartzeak egoera hori ugaltzea ekar dezake.

Bestalde, kontuan hartuta administrazioak betetzen duen sustapen jarduera, normala izan daiteke enpresa horiek dirulaguntzak edo laguntzak jaso izana, batez ere instalatzeko, inbertsioak egiteko edo enplegurako nagusiki. Laguntza horiek, beharbada, foru administrazioak, hau da, industria, lan, nekazaritza, hezkuntza, ogasun departamentuek kudeatuko zituzten eta halaber toki administrazioak ere.

Parlamentu-talde honek jakin nahi du zein den Nafarroako araudiaren egoera arlo horretan eta, horrexegatik, Nafarroako Comptos Ganberak gai honi buruz aholku emateko txostena ematea nahi luke, fiskalizazio organo hori baita aurrekontu eta ekonomia gaietan Nafarroako Parlamentuari aholku ematen diona, azter dezan ea egun dauden sustapen neurrietan aurreikusirik dagoen bermatzea laguntzak jasotzen dituzten enpresa horiek Nafarroatik alde eginen ez dutela edo, bestela, emandako laguntzak berreskuratzeak aukera izanen dela. Jakin nahi genuke, halaber, zein diren Comptos Ganberak, azterlanaren ondorioz, eginen lituzkeen gomendioak edo iradokizunak Nafarroako zergadunen dirua modu egokian erabiltzen dela bermatzeko.”

Eskari horren ondorioz, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak, ekainaren 3an emandako ebazpenaren bidez, erabaki zuen urteko jarduketa programan sartzea lan hori eta txosten-egile bat izendatzea.

Comptos Ganberak, erabaki hori betetzeko eta erakundea arautzen duen legeari jarraituz, aholku emateko txosten hau egin du.

Gure lanaren jomuga izan da aztertzea zein den Nafarroako Foru Komunitatean sustapen jarduerari aplikatu beharreko esparru juridikoa, arreta emanez bereziki Europako araudiak esparru juridiko horren ezaugarrietan duen eraginari eta enpresa horiek foru lurraldetik alde egin ez dezaten Nafarroako araudian aurreikusten diren neurriei.

II. SUSTAPEN JARDUERA

Sustapen jarduera esku-hartze administratibo mota bat da, partikularren ekintza interes orokorreko helburuetara bideratzen duena hainbat pizgarri emanez.

Sustapen jarduera zenbait motatan sailkatu daiteke, zein ekintza sustatu nahi den hori gauzatu behar duten partikularrei emandako abantaila desberdinen arabera. Kasu honetan interesatzen zaizkigunak dira pizgarri ekonomikoen bidez –primak, dirulaguntzak, zerga arintzea, etab.– gauzatzen diren sustapen neurriak.

Espainiako Konstituzioak manu anitzetan aipatzen du sustapen jarduera, jarduketa administratiboaren beste adierazpen baten gisa, jarduketa administratibo hori ageri den ia sektore guztiekin zerikusia duena. Politika sozial eta ekonomikoa zuzendu behar dituzten printzipioen berri ematean honakoa adierazten du “Botere publikoek baldintza onuragarriak sustatuko dituzte, aurrerapen sozial eta ekonomikoa gerta dadin (40.1 artikulua), osasun-hezkuntza, hezkuntza fisikoa eta kirola (43.3 artikulua), kontsumitzaileen antolakuntzak (51.2 artikulua), kooperatiba-sozietateak (129.2 artikulua) sustatuko dituzte”. Guri interesatzen zaigun gaiari dagokionez, berriz, Espainiako Konstituzioak autonomia erkidegoen esku uzten du eskumen hau: “Autonomia erkidegoaren garapen ekonomikoa sustatzea, nazioko politika ekonomikoak finkatu dituen helburuen barruan” (148.1.13 artikulua).

Nafarroako Foru Komunitateak finantza autonomia du Foru Hobetzearen 45. artikulua ezarritako moduan, eta beraz ahalmena du dirulaguntzak egiletsi eta emateko erabilera edo interes sozialeko jarduerak sustatzeko edo Foru Komunitatearen eskumen materialekoak diren helburu publikoak erdiesten laguntzeko.

Foru Hobetzearen arabera, jarduera ekonomiko orokorraren oinarri eta antolamenduarekin bat eta moneta, kreditu, banku, eta aseguruaren arloan Estatuak duen politikarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa izanen du sustapen jarduerarekin zerikusia duten hainbat gaitan, besteak beste, hauen gainean: a) Jarduera ekonomikoaren plangintza eta garapen ekonomikoaren sustapena Nafarroaren barnean; b) Industria; c) Industri sektoreen birmoldaketarako Estatuak ezarritako planak Nafarroan garatu eta betearaztea (Foru Hobetzearen 56.1 artikulua). Ulertuko da eskumen oso hori ez dela eragozpen enpresa askatasunaren errespeturako merkatuko ekonomia-aren esparruan, Espainiako Konstituzioren 38. artikulua ezartzen duen bezala.

Bestalde, Espainia Europako erkidegoetan sar-tzearen eraginez, Espainiako ordenamendu juridikoan txertatu dira estatuetako enpresen arteko lehia errazteko estatu bakoitzeko pizgarrien politikari ezartzen zaizkion debekuak eta mugak.

Europar Batasuneko ordenamendu juridikoa honakoek osatzen dute: itunak, jatorrizko zuzenbidea izenekoa osatzen dutenak ordenamendu juridikoa sortu zuten arauak direlako, eta zuzenbide eratorria deitutakoa, gehienbat erregelamenduak eta zuzentarauak, erkidegoko erakundeek egina eta onetsia estatu kideek aipatutako itunen bidez erkidegoaren esku utzitako eskumenetan oinarriturik.

Erkidegoko zuzenbidearen ezaugarria da lehenasunezkoa eta zuzen aplikatzekoa dela eta beraz Nafarroako zuzenbidea baldintzatzen du, mendearen hartzen duelako eta lehenasunez aplikatzen delako.

Europar Batasuneko lehiaren arloko politikak Europako Erkidegoaren Itunean (EEI) du oinarria eta estatuko laguntzen gainean erkidegoak betetzen duen kontrolean mamitzen da. Europako Batzordeak, Itunaren xedapenen bermatzaile den aldetik, EEIren 87tik 89ra bitarteko artikulak aplikatuz betetzen du kontrol hori.

Batzordearen iritziz, "estatuko laguntzak lehia liberarako oztopo izan daitezke, eraginkortasuna kentzen diotelako baliabideen esleipenari eta merkatu bakarraren batasunaren kontrako mehatxua direlako. Kasu askotan, estatuko laguntzak emateak ongizate ekonomikoa murrizten du eta eraginkortasuna hobetu nahi duten enpresen asmoak epeltzen ditu. Era berean aukera ematen dute errentagarritasun txikiarena duenak iraun dezan altuagoa duenaren kaltetan. Laguntza horiek kontrolatzeko sistemaren helburua da eraginkortasun falta hori arintzea eta barneko merkatuaren eta diru bakarraren aprobetxamendua erabatekoa izaten laguntzea.

Bestalde, Europako Kontseiluak Lisboan eta Stockholmen eginiko goi bileretan onartu da Europa gai izan dadin hazkunde ekonomiko eramangarria edukitzeko, kalitate hobeko lanpostuak eta kohesio sozial handiagoa sortuz, beharrezkoa dela lehiakortasuna hobetzea, Europako gizarte bera dinamikoa izaten eta ezagutzen oinarritzen ahaleginduz ez ezik estatuko laguntzen kopurua murriztuz ere. Lehiakortasunaren helburu hori lortzeko honako neurri hauek proposatzen dira, besteak beste:

"Guztientzako informazio gizartearen gaian aurrera egitea; Europako ikerketa eta berrikuntza eremua sortzea; enpresa berritzaileak, bereziki enpresa txikiak eta ertainak, abian jarri eta garatzeko ingurune egokia sortzea; ezagutzaren gizartean bizi eta lan egiteko hezkuntza eta prestakuntza; enplegu politika aktiboa garatzea; gizarte

babesaren modernizazioa; gizarte bazterketaren kontrako borroka".

Aurrekoarekin loturik, Batzordeak uste du baliabide publikoek, inbertsioa sustatzeaz gain, sostengua eman behar dietela horrelako neurriei, eta beste politika batzuekin batera, estatuko laguntzek bide eman behar dutela lan esku kualifikatua eta ongi prestatua eskaintzeko, bai eta enpresa izpiritua bizkortuko duen zerga- eta araudi-ingurune bat ere.

Ikusten den bezala, Erkidegoko zuzenbideak konkurrentzia eta lehia libreak eta estatuko laguntzen kontrola sustatzen ditu, eta uste du, halaber, sustapen jarduera lehiakortasuna hobetzera bideratu behar dela, eta bereziki lehen aipatutako jarduketaren eremuak sendotu.

III. ONDORIOAK

Hona hemen gure lanetik atera ditugun ondorio-rik garrantzizkoenak:

Lehenbizikoa. IV. atalean Erkidegoko zuzenbideaz eginiko azterketatik ondorioztatzen dugu enpresei emandako laguntza publikoak Europar Batasunaren lehiaren gaineko politikaren arauen mende daudela, zehazki, EEIren 87.etik 89.era bitarteko artikuluek xedatzen dutenaren mende. EEIren 87. artikuluko 1. idatz-zatiak ezartzen du printzipio orokorra dela estatuko laguntzak bateraezina direla merkatu bateratuarekin, baina halere printzipio horrek bi salbuespen ditu: automatikoak, hau da, itunak espresuki aurreikusten dituenak eta erkidegoko organismoen alde aurretiko inolako jarduketaren beharrik gabe aplikatzekoak direnak eta bateragarriak diren ala ez organismo horiek beraiek ezarri behar dutenen kasua. Azken horien artean nabarmendu daitezke zenbait jardueraren edo zenbait eskualderen garapena sustatzeko laguntzak, baldin eta trukaketako baldintzak interes orokorraren kontra jartzen ez badira. Hurrenez hurren horizontalak eta eskualdekoak diren laguntza horien inguruan Batzordeak erregelamendu batzuk onetsi ditu, jakinarazpenetik salbuesten dituztenak eta merkatu bateratuarekin bateragarri direla deklaritzen dutenak, betiere erregelamendu horietan eskatzen diren baldintzak betez gero.

Bigarrena. Estatuko laguntzen erregulazioan, erkidegoko organismoek zedarritzeak, erregelamenduak, jarraibideak, komunikazioak eta erabakiak erabiltzen dituzte, eta horietara egokitu behar dira, aitzakiarik gabe, Nafarroan ematen diren laguntzak, Europako Erkidegoko zuzenbideak, estatu kideetako ordenamenduari dagokionez, autonomia, zuzeneko aplikagarritasuna eta lehenasuna baititu.

Arlo honetako Erkidegoko araudia, i. eranski-nean xehetasunez jasotzen dena, zuzenean aplikatzekoa bada ere, aurreikusten ditu zenbait alderdi zeinetan estatu kideek neurriak hartu behar dituzten –legegintzakoak, erregelamenduzkoak, administratiboak edo finantzarioak–, bere xedapenak aplikatu daitezzen beharrezkoak direnak. Konstituzio Auzitegiak behin baino gehiagotan emaniko doktrinaren arabera, Espainia Europar Batasuneko kide izateak eta Erkidegoko zuzenbidea egoteak ez dute aldatzen eskumenen barne banaketa. Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateak lege eta erregelamendu bidez gara dezake Erkidegoko zuzenbidea garatu beharreko gaia bere eskumenekoa bada Foru Hobetzearen arabera, Erkidegoko arauak eskatu edo baimentzen duenari lotuz.

Hirugarrena. Aurrekoaren ondorioz eta, Erkidegoko zuzenbidetik datozen mugak eta debekuak direla eta, Nafarroako Foru Komunitatearen jokalekua oso murrizta da Nafarroan kokaturik dauden enpresen jarduera ekonomikoa bultzatzeko sustapena arautzeko dagokionez. Nafarroak ahalmena du laguntzak ezarri eta emateko, baina laguntza horiek Europar Batasunaren lehiaren arloko politikaren arauen mende daude.

Laugarrena. Txosten honen xedea dela eta, V. atalean aipatzen denez, Nafarroako Foru Komunitateak hainbat arau eman ditu sustapenaren inguruan bere eskumenekoa diren gaietan; horien artean aipagarria da, erreferentziako araua baita Foru Komunitateko administrazioaren esparruan, azaroaren 20ko 361/2000 Foru Dekretua, inbertsioa eta enplegua sustatzeko laguntzetarako araubide berria ezarri zuena.

Foru Dekretu horrek, Erkidegoak eskualde xedeko estatuko laguntzei buruzko jarraibideak ezarri aurretik zegoen laguntza araubidea egokitzeko emandakoak, onuradunak bete beharreko zenbait beharkizun ezartzen ditu; beharkizun horiek gehienak Erkidegoko araudiak exijitzen dituenak dira, hala nola, diruz lagundu beharreko ondasun enpresaren jarduerari atxikirik eta Nafarroan kokatuta egotea, gutxienez 5 urtez edo, epea laburragoa balitz, erabilera aldian, eskuz aldatu, errentan jarri edo haien erabilera hirugarrenei laga gabe, eta, kasua bada, diruz lagundutako enplegu gehikuntzari eustea bost urtez gutxienez inbertsio proiektua egiten denetik aurrera. Betebehar horiek ez betetzeak emandako dirulaguntza itzuli beharra dakar eta itzuli beharreko diru zenbatekoa zuzenbide publikoko dirusarreratzat hartzen da, beraz epean ez bada ordaintzen aplikatzekoa da premiamendu bidez biltzeko prozedura. Aurrekoaz gain, erregistro publiko batean inskribatu beharreko ondasun inbertariagarrietan eginiko inbertsioak

finantzatzen dituzten dirulaguntzen kasuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 31. artikulua ezartzen du ondasun horiek dirulaguntza zein xedetarako eman horretarako erabili beharko direla bost urtez gutxienez, eta hala agerraraziko da eskrituran eta kasuan kasuko erregistro publikoan ere inskribatu beharko da; ondasun horiek izanik erabilerako betebeharraren bermea.

Bosgarrena. Diruz lagundutako ondasun inbertariagarrien xedeari bost urtez eusteko betebeharra Erkidegoko araudiak eskatzen du gutxienezko gisa eta, beraz, epe luzeagoa ezar liteke araudian enpresen deslokalizazioa oztopatze aldera. Aukera hori, Erkidegoko zuzenbidearen ikuspuntutik zilegia bada ere, neurtu egin behar da kontuan hartuta horrelako neurri batek Nafarroan inbertitzeko prest dauden enpresetan kontrakoa eragin dezakeela; enpresa horiek ezarpeneko kostu handiagotzat hartuko bailukete epe luzeagoan jasotako laguntzak etorkizunean itzultzeko aukeraren mende egotea.

Seigarrena. Sustapenaren arloan Foru Komunitateko administrazioaren esparruan indarra duten gainerako arauak, txosten honen V. atalean aztertutakoek, laguntzen onuradunek bere gain hartu eta bete beharreko zenbait beharkizun ezartzen dituzte; oro har, bat datoz ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legean, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorrari buruzkoan, eskatzen direnekin. Beharkizun horiek ez betetzeak dakarren berezko ondorioa da dirulaguntza itzultzea eta arau-hauste administratibo edo penaltzat ere har daitezke. Araudi horrek ez du oro har ezartzen berriazko neurriak enpresek Nafarroatik alde egin ez dezaten bermatzeko, baina ondasun inbertariagarrietarako inbertsioak finantzatzeko dirulaguntzen kasuan, aplikatzekoa da Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 31. artikulua, zeinak ondasun horien gaineko berme erreala eratzea behartzen duen, dirulaguntza zehazki zertarako eman zen, horretan erabiltzeko beharkizunaren berme izan dadin, bost urteko epean gutxienez.

Zazpigarrena. Txosten honetako VI. atalean aztertzen den toki esparruan, toki entitate batzuek onetsi egin dituzte enplegua eta inbertsioa sustatzeko laguntzei buruzko udal ordenantzak, kasuan kasuko toki entitatearen lurralde esparruan jarduerak ekonomikoa eta enplegua sortzen duten enpresa proiektuak bultzatu eta laguntzeko xedea dutenak, oro har. Ordenantza horietan, diruz lagundutako enpresak ez joatea bermatzearen, Foru Komunitateko administrazioak inbertsio eta

enplegurako laguntzetan, lehen azertu ditugun horietan, ezarritako baldintzen antzekoak eskatzen dira; baldintza horiek Europako Erkidegoak eskualde xedeko estatuko laguntzei buruz eman dituen jarraibideek ezarritakoak dira, honelako laguntzak haien mende baitaude.

Zortzigarrena. Finean, txosten honen helburuari dagokionez, aztertutako arau multzotik atera dugun ondorioa da Nafarroako Foru Komunitatean sustapen jardueraren arloan indarra duen araudiak neurri batzuk ezartzen dituela enpresak foru lurraldean geldi daitezen bermatzeko, eta neurri horiek gehienbat Erkidegoko zuzenbideak eskatzen dituen gutxienekoak direla, Dirulaguntzei buruzko Foru Legean xedatutakoaz osaturik.

Bederatzigarrena. Azkenik, amaierako hausnarketak gisa, gure ustez, enpresak eskualde batean gelditzearen alde egiteko, lehiari eragiten dioten abantailak eduki behar dira zenbait arlotan: azpiegiturak, komunikazioak, energia, langileen kualifikazioa, finantza zerbitzuak, ekipamenduak eta logistika. Bestalde, ikerketa eta garapen jarduerak sustatzea eta berrikuntzan, prestakuntzan, ekitean eta barne ekitean inbertsioa laguntzea negozio berriak sortzeko eskualdeko ekonomiaren balio erantsia eta enpresen lokalizazioa areagotzen duten faktoreak dira. Ekintza horiei neurri osagarriak gehitu behar zaizkie, enpresen lehiakortasuna hobea izan dadin eta enplegua hobetzeko ezagutza zientifikoa eta teknologikoaren sorrera, zabal-kundea eta bereganatzea sendotu daitezten.

Beraz, gure iritziz, garrantzi berezia eman behar zaio Foru Komunitatean enpresak ezartzen lagunduko duten baldintza horiek guztiak sustatzeari, aurrekontuek aukera ematen duten neurrian, lehendik dauden alderdiak sendotuz, alegia: Nafarroako plan teknologikoa, azpiegitura plana eta, oro har, berrikuntzaren, produktibitatearen hobekuntzaren, teknologia berrien garapenaren eta ezagutzaren gizartearen aldeko laguntzak.

IV. EUROPAKO ZUZENBIDETIK DATOZEN MUGAK

Erkidegoko zuzenbideak ez du dirulaguntza eta laguntza publikoen gaineko estatuko zuzenbideak ordeztu, baina baldintzatu egin du. Estatuek gorde dituzte laguntzak ezarri eta emateko ahalmenak, baina Europako Erkidegoaren Itunaren 87.etik 89.era bitarteko artikuluek ezartzen dituzten mugen mende gelditu dira.

Gaur egun onarturik dago lehia libreak funtsezko zeregina betetzen duela Europako Erkidegoaren barneko merkatuaren ezarpenean eta funtzionamenduan eta Europako integrazio prozesuaren

helburu orokorren sustapenean. Europako Erkidegoko Itunaren 2. artikuluari jarraikiz, Europako Erkidegoaren eginkizuna honakoak sustatzea da: "jarduera ekonomikoen garapen harmoniatsua, orekatua eta iraunkorra erkidego osoan; enplegua eta gizarte babesa, maila handian; gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna; hazkunde iraunkorra eta ez-inflazionista; emaitza ekonomikoen lehiakortasun eta konbergentzia, maila handian; ingurumenaren babesaren eta kalitatearen hobekuntza, maila handian; bizi maila eta kalitatea handitzea; kohesio ekonomiko eta soziala; eta estatu kideen arteko elkartasuna". Helburu horiek merkatu bateratua eta batasun ekonomikoa eta diru arlokoa ezarri erdietsiko dira, eta 3. eta 4. artikuluetan aurreikusitako politika edo ekintza bateratuak eginez.

Europako Erkidegoko Itunaren 3. artikuluan aurreikusitako ekintzetako bat da ezartzea "barneko merkatuko lehia faltsutuko ez dela bermatzeko araubide bat".

Itunaren 4. artikulua, berriz, lehen idatz-zatian ezartzen du "2. artikuluan adierazitako helburuak erdiesteko, estatu kideen eta erkidegoaren ekintza izanen da politika ekonomiko bat ezartzea, betiere itun honetan aurreikusitako baldintzetan eta erritmoan, estatu kideen politika ekonomikoen arteko koordinazio estuan, barneko merkatuan eta helburu bateratuen adostean oinarriturik, eta merkatuko ekonomia ireki eta lehia librekoaren printzipioa errespetatuz gauzatuko dena.

Beraz, aurrekoaren ondorioa da lehia librearen errespetua Itunaren zutabeetako bat dela; izan ere Itunak aitortzen du merkatuak eta lehiak funtsezko zeregina dutela kontsumitzaileen ongizatea bermatzen, baliabideen esleipen egokiena sustatzen eta pizgarri egokiak eskaintzen eraginkortasuna, kalitatea eta berrikuntza produktiboak lortzeari begira. Erkidegoak eta estatu kideek merkatuko ekonomiaren eta lehia librearen printzipioak errespetatuz bideratu behar dituzte euren politika ekonomikoak.

Azken batean, laguntzak ezartzea bitarteko beharrezkoa da Itunak bilatzen dituen helburuak erdiesteko, hala nola, garapen orekatua eta iraunkorra edo kohesio ekonomiko eta soziala sendotzea, baina sustapen jarduera hori, berriz, Itunaren beste helburu baten errespetuak mugatzen du, alegia lehia librea bermatzeko araubidea ezartzea.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da Amsterdameko Kontseiluak 1997ko ekainean erabaki zuen egonkortasun eta hazkunde akordioak ezartzen duen muga; horren arabera Batasuneko kide diren estatuek konpromisoa hartu zuten

aurrekontu egonkortasunaren helburua lortzen ahalegintzeko eta defizit publikoa BPGaren ehuneko 3tik behera mantentzeko. Horren eta beste helburu batzuen ildoan, Europako Kontseiluak, Stockholmen (2001eko apirila) eta Bartzelonan (2002ko martxoa) eginiko bileretan, estatu kide guztiak premiatu zituen laguntza publikoak murriztera “aintzat hartuta beharrezkoa dela laguntza bideratzea interes komuneko helburu horizontaletarantz, kohesiokoak barne” (Stockholm) eta “estatuko laguntza txikiagoa eta hobeki bideratua giltzarria dela lehia eraginkorrari begira” (Bartzelona). Aurrekontu egonkortasuneko esparru berri horren diseinua dela-eta murriztu egin da Espainiako administrazioen jokalekua –estatukoak, autonomikoak eta tokikoak–, gastuaren bolumena finantzaziorako aukeren arabera mugatu delako.

Itunak ez du berariaz diseinatzen Batasuneko herrialdeentzako hazkunde ekonomikorako eredu bat. Baina, inplizituki, bai Itunetik bai Egonkortasun eta Hazkunderako Hitzarmenetik ondorioztatzen den eredua, dirudienez, oinarritzen da, oro har, esku-hartze publikoek ekonomian eragin dituzten zurruntasunak, eraginkortasun falta eta ekitate eza zuzentzean.

Beraz, Erkidegoaren lehia politikaren funtsezko elementua da Erkidegoaren kontrola estatuko laguntzen gainean, itunaren 87.etik 89.era bitarteko artikuluetan jasota dagoena. Bestalde, beharrezkoa da kontuan izatea Europako Erkidegoetako Batzordearen irizpideak, erakunde hori baita Itunaren xedapenak (EEIren 201. artikulua) eta Europako Erkidegoetako Auzitegiaren jurisprudentzia aplikatzen direla zaintzeko eskumena duena.

IV.1. LAGUNTZEN BATERAEZINTASUNA, PRINTZPIO OROKORRA.

EEIren 87. artikulua, lehen idatz-zatian deklaritzen du merkatu bateratuarekin bateraezinak direla “estatuek edo estatuen funtsen bidez emandako laguntzak, edozein motatakoak, estatu kideen arteko merkataritzako trukaketei eragiten dieten neurrian, baldin eta lehia faltsutzen badute edo faltsutzeko modukoak badira, zenbait enpresa edo ekoizpenen alde eginez”.

Manu horretan jasotzen da merkatu bateratuarekin bateraezinak diren laguntzei buruzko arau orokorra eta estatuko laguntzaren kontzeptua sartzeko da.

Estatuko laguntzat hartzen da estatuak edo estatuko baliabideen bitartez ematen dena, ezaggarri hauek baldin baditu:

- Jasotzen duenarentzat onura ekonomikoa izatea.
- Selektiboki ematea enpresa edo ekoizpen jakin batzuei.
- Lehia faltsutzeko modukoa izatea.
- Estatu kideen arteko merkataritzako trukaketei eragitea.

Europako Batzordeak eta Europako Erkidegoetako Auzitegiak estatuko laguntzaren kontzeptua oso modu zabalean ulertu dute. Erkidegoko organoek kontzeptu horretan sartzen dute lurralde kolektibitate batek emandako laguntza publiko oro. Baina estatuko laguntza batek izan dezake jatorria, halaber, estatutu pribatua duen entitate pribatu edo publiko batean, edo eragin nagusia, zuzenean nahiz zeharka, estatuarena, ente publiko batena edo toki kolektibitate batena den organismo batean. Puntu honetan Erkidegoko zuzenbideak ez ditu aintzat hartzen zuzenbide nazionalak estatutzat edo estatuko funtsezat hartu behar denaz emandako kalifikazioak. Estatuaren kontzeptu zabal horretan honakoak sartu behar dira: Estatuko administrazio orokorra, autonomia erkidegoak, toki entitateak, haien mendeko organismoak eta enpresak etab.

Formari dagokionez, bateraezintasunak mota guztietako laguntza asko jotzen ditu, zuzenekoak eta zeharkakoak. Izan ere, laguntza mota, haren arrazoia eta helburua ez dira garrantzizkoak. Garrantzitsua den bakarra lehian duen eragina da. Beraz, laguntzat hartzen dira prestazio positiboak, dirulaguntzak, kasu, ez ezik, enpresa baten finantza zamak jaisten dituen beste edozein neurri ere, adibidez: zergetatik salbuestea, korrituen hobariak, bereziki onak diren baldintzetan emaniko maileguen bermeak, lurra erostea dohainik edo oso baldintza onetan, ondasunen hornidura edo zerbitzuak ematea lehentasunezko baldintzetan, galaren estaldura, edo pareko ondorioak dituen beste edozein neurri.

IV.2. BATERAEZINTASUNAREN PRINTZPIO OROKORRAREN SALBUESPENAK

EEIren 87. artikulua 1. idatz-zatiak ezarritako bateraezintasunaren printzipio orokorrak bi salbuespen mota ditu: automatikoak, hau da, Itunak espresuki aurreikusten dituenak eta Erkidegoko organismoen alde aurretiko inolako jarduketaren beharrik gabe aplikatzekoak direnak, eta bateragarriak diren ala ez organismo horiek beraiek ezarri behar dutenen kasua.

1. Bateriaezintasunaren printzipio orokorren salbuespen automatikoak.

EEIren 87. artikulua 2. idatz-zatiak honakoak merkatu bateratuarekin bateragarriak direla deklaratu du:

(a) Banakako kontsumitzaileei emandako laguntza sozialak, betiere produktuen jatorrian oinarritutako bereizkeriarik gabe ematen badira.

(b) Hondamendi naturalek edo aparteko beste gertaera batzuek sortutako kalteak konpontzeko emandako laguntzak.

(c) Alemaniako Errepublika Federaleko zenbait eskualdetako ekonomiaren alde egiteko emandako laguntzak, Alemaniak izandako banaketaren ondorioz sortutako desabantaila ekonomikoak orekatzeko beharrezkoak diren heinean, orduko banaketaren eraginpean dauden eskualdeetan.

c) ataleko laguntzak, Alemaniaren bateratzetik balio historikoa baizik ez dutenak, alde batera utzita, salbuespen automatikoak bi multzotan gelditzen dira, bata izaera sozialekoena, banakako kontsumitzaileen aldekoak, ez enpresen aldekoak, eta bestea aparteko gertaerek sortutako kalteak konpontzekoak, merkatu bateratuarekin bateragarriak direnak, herrialdeen arteko merkataritza trukaketei eragin edo lehia faltatu arren.

2. Europako Erkidegoko organismoek ezarri beharreko bateragarritasuna edo bateraezintasuna duten laguntzak.

EEIren 87. artikulua 3. idatz-zatiaren arabera, honakoak joko dira merkatu bateragarriarekin bateragarritzat:

(a) Bizi maila nabarmen apala duten eskualdeetako edo enplegu urritasun larria pairatzen duten eskualdeetako garapen ekonomikoaren aldeko laguntzak.

(b) Europako interes orokorreko proiektu garrantzitsuren bat egitea sustatzeko laguntzak edo estatu kideren bateko ekonomiaren asaldura larri bat konpontzeko laguntzak.

(c) Zenbait jarduera edo eskualde ekonomiko jakin batzuk garatzen sustatzeko laguntzak, baldin eta trukaketako baldintzak interes orokorren kontra jartzen ez badira.

(d) Kultura sustatu eta ondarea zaintzeko laguntzak, baldin eta Erkidegoko trukaketarako eta lehiarako baldintzak interes orokorren kontra jartzen ez badira.

(e) Kontseiluak, Batzordeak proposaturik, gehiengo kualifikatuaz hartutako erabakiz zehazten dituen gainerako laguntza motak.

Atal honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak diren ala ez erabakitzea Batzordeari eta Kontseiluari dagokie, baina horretarako mugak dituzte, printzipio batzuei lotu behar zaizkielako, besteak beste hauei:

- Erkidegoaren helburua betetzen laguntzea, interes nazionalaz edo eskualdekoaz haratago.

- Laguntzaren premia, hura gabe helburu komuna erdiesterik ez legokeelako edo soilik kostu onartezin batekin ikuspuntu sozialetik.

- Laguntzaren proportzionaltasuna helburuarekiko (intentsitatea, iraupena, gardentasuna...).

Auzitegiak aipatutako printzipio horiei guztiei behar besteko justifikazioaren printzipioa esaten zaie.

IV.3. LAGUNTZAK BATERAGARRIAK DIRELA DEKLARATZEKO PROZEDURA

Europako Erkidegoaren Itunaren 88. artikulua laguntzen bateragarritasuna kontrolatzeko sistemaren prozeduraren ingurukoak jasotzen ditu; sistema bi printzipio funtsezkotan oinarritzen da: alde aurretik jakinarazi beharra eta laguntzaz baimena izan aurretik baliatzeko debekua; 3. idatz-zatian ezartzen du laguntzak eman edo aldatzeko proiektuen berri Batzordeari eman behar zaiola, bere oharpenak aurkezteko denbora nahikorekin. Proiekturen bati 87. artikulua arabera merkatu bateratuarekin bateraezina dela iritziz gero, Batzordeak luzamendu gabe ekinen dio aurreko idatz-zatian aurreikusitako prozedurari. Estatu kide horrek ezin izanen ditu gauzatu bere proiektuko neurriak harik eta prozeduran behin betiko erabakia hartu arte.

Prozedura hasten da laguntza berriaren edo haren aldaketaren berri estatu kideak Batzordeari ematean. Espainiako Estatuan, jakinarazteko prozedura abenduaren 23ko 1755/1987 Errege Dekretuan arauturik dago, honakoa ezartzen duela: laguntzak ezarri, eman edo aldatzeko asmoa duten administrazio eta ente publiko guztiek, laguntza horiek alde aurretik jakinarazi beharrezkoak badira, kasuan kasuko proiektuak Europar Batasuneko Gaietako ministerioen arteko Batzordeari igorri beharko dituzte. Proiektaturiko laguntza ezin izanen da erabili Batzordeak laguntza baimentzeko erabakia hartu arte edo hartu duela ulertu arte.

Laguntzen araubideari eragozpenik jartzen ez bazaio Batzordeak erabakiaren berri ematen dio estatu kide horri eta haren laburpen bat argitaratzen da Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean.

Batzordearen iritziz laguntza bateraezina bada merkatu bateratuarekin, edo bateragarritasunaren inguruan zalantzak baldin badira, Europako Erkidegoko Itunaren 88.2 artikuluan aurreikusitako prozedurari ekiten zaio. Prozedura horretan eskatzen zaio interesa duen estatu kideari, eta kasua bada interesa duten gainerako alderdiei ere, oharpenak aurkez ditzaten. Prozedura aldeko erabaki batez amaitzen da laguntza bateragarria dela deklaratzeko gero, eta kontrako erabaki batez deklaratzeko bada laguntza bateraezina dela merkatu bateratuarekin.

Europako Erkidegoaren Itunaren 89. artikulua baimena ematen dio Europar Batasuneko Kontseiluari Itunaren 87. eta 88. artikulua aplikatzeko egokiak diren erregelamenduak onartzeko, bereziki, zein diren Batzordeari laguntzen jakinarazpena egin beharra aplikatzeko baldintzak, eta zehazteko zein diren prozedura horretatik kanpo uzten diren laguntza motak.

Baimen horretaz baliatuz Kontseiluak 1999ko martxoaren 22ko 659/1999 Erregelamendua (EE) onetsi zuen, Itunaren 88. artikulua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen. Erregelamendu horrek jakinarazitako laguntzei, legez kanpoko laguntzei, gehiegizko laguntzei eta dauden laguntza araubideei aplikatzekoak zaizkien prozedurak ezartzen ditu.

Ez-legezko laguntzat hartzen da Itunaren 88.3 artikuluan xedatutakoaren kontra gauzatzen den edozein laguntza berri, dauden laguntzen aldaketa barne. Hau da, betetzen ez bada Batzordeari jakinarazi beharra, merkatu bateratuarekin bateragarria den ala ez azter dezan. Kasu horretan, Batzordeak laguntza aztertuko du eta agindu ahal izanen du legez kanpo emandako laguntza oro behin-behineko berreskuratzeko eta bertan behera uzteko laguntza ematea. Laguntza bateraezina deklaratzeko bada, Batzordeak estatu kidea premiatuko du behar diren neurriak hartzera onuradunak laguntza itzul dezan, hura erabili duen aldiari dagozkion interesak barne.

Gehiegizko laguntzei ez-legezko laguntzei aplikatzen zaienaren antzeko prozedura ezartzen zaie, baina kasu honetan Batzordeak ez du ahalmenik errekerimendu bidez premiatzeko gehiegizko laguntza berreskura dadin, eta Europako Erkidegoko Auzitegira jo behar da honelakoetan.

Dauden laguntzei dagokienez, Batzordeak, estatu kidearekin elkarlanean, laguntza horien araubideak berrikusi ahalko ditu. Batzordeak ondorioztatzen badu laguntza araubide bat ez dela bateragarria merkatu bateratuarekin, edo batera-

garria izateari utzi diola, estatu kideari gomendatuko dio neurri hauetako bat har dezan:

- Laguntzen araubidearen aldaketa sakona.
- Prozedura betebeharrak batzuk txertatzea.
- Laguntzen araubidea kentzea.

Azkenik, estatu kideek urteko txostenak aurkeztu behar dizkiote Batzordeari dauden laguntza araubide guztiei buruz.

IV.4. JAKINARAZTEKO BETEBEHARRETIK SALBUETSIRIK DAUDEN LAGUNTZAK. LAGUNTZA HORIZONTALAK ETA ESKUALDEKOAK.

Laguntzen bateragarritasuna EElaren 87.3 artikuluko erkidegoko organismoek erabaki beharrekoa denean, haien iritzia da helburu horizontaletarako estatuko laguntzak, hau da, sektore edo eskualde geografiko zehatz bati ematen ez zaizkionak, merkatuko akatsak zuzentzeko erabiltzen direla eta ez dutela lehia faltsutzen laguntza sektorialeki eta ad hoc laguntzek adina. Ikerketa eta garapen jarduerak, ingurumenaren zaintza, prestakuntzaren sustapena, energia aurrezteak, enpresa txiki eta ertainei laguntzea, enplegua sortzea eta eskualdeko garapenerako laguntzak dira, Erkidegoko organismo horien iritziz, helburu horizontal garrantzitsuenak.

Aurrekoaren ildoan eta EElaren 89. artikulua emandako baimenaz baliatuz, Kontseiluak maiatzaren 7ko 994/98 (EE) Erregelamendua onetsi zuen, Batzordeari ahalmena ematen diona honako laguntza horizontal mota hauek merkatu bateratuarekin bateragarriak direla eta jakinarazpenaren betebeharretik salbuesirik daudela deklaratzeko, kasuan kasuko erregelamendua emanez:

a) Honako hauen aldeko laguntzak: enpresa txiki eta ertainak, ikerketa eta garapena, ingurumenaren babesa eta enplegua eta prestakuntza.

b) Estatu kide bakoitzak eskualdeko laguntzak emateko Batzordeak onetsitako maparekin bat datozen laguntzak.

Hau da, gaikuntza ematen zaio Batzordeari laguntza moten arabera salbuespen erregelamenduak onesteko, eta horrek esan nahi du laguntza mota batzuk Batzordeari jakinarazi eta Batzordearen onespenez jasotzeko betebeharretatik –Itunaren 88. artikulua– salbuesirik daudela. Salbuespenaren onuradun izateko, laguntza programek kasuan kasuko erregelamenduan jasotako baldintza guztiak bete behar dituzte, bestela salbuespenak aplikatzekoa izateari uzten baitio.

Arau-testuinguru horretan, administrazio prozesuak errazteko eta baliabideak kontzentratzeko

lehiari kalte larrienak eragiten dizkieten laguntzen kontrolean, Batzordeak ondoko erregelamenduak, jarraibideak eta zedarripenak onetsi ditu, kategorien salbuespenerako eta ebaluaziorako, xede horizontaleko nahiz eskualdeko duten estatuko laguntzak baimentzeko (horien edukia txosten honen I. eranskinean zehazten da):

1. 2001eko urtarrilaren 12ko 68/2001 Erregelamendua (EE), prestakuntzarako laguntzei buruzkoa, otsailaren 25eko 363/2004 Erregelamenduak aldatu zuen. Erregelamendu hori sektore guztietan emandako laguntzei aplikatzen zaie, baina salbuespena ez da aplikatzekoa izanzen laguntza proiektu bakar baterako emandako laguntzaren zenbatekoa milioi bat eurotik gorakoa bada.

2. 2001eko urtarrilaren 12ko 69/2001 Erregelamendua (EE), minimis laguntzei buruzkoa. Salbuespena aplikatzeko, edozein enpresari emandako minimis laguntza, osotara, 100.000 eurotik beherakoa izan beharko da hiru urteko epean.

2001eko urtarrilaren 12ko 70/2001 Erregelamendua (EE), enpresa txiki eta ertainendako laguntzei buruzkoa; otsailaren 25eko 364/2004 Erregelamenduak (EE) aldatu zuen.

3. Erregelamendu horren arabera, enpresa txikiak eta ertainek honako laguntza hauek jaso ahal dituzte: inbertsio eta enplegurako, aholkularitza zerbitzuetarako eta bestelakoetarako eta ikerketa eta garapenerako.

Eskualdeko laguntzen onuradun diren eremuetan, Nafarroan, kasu, dauden enpresa txiki eta ertainek eskualdeko xedea duen inbertsio laguntzarako ezarri den gehienekoa jaso ahal izanzen dute, ehuneko 10 gehitua, baldin eta inbertsioa bost urtez gutxienez mantentzen bada eskualde onuradunean.

Lanpostuak sortzeko laguntzak inbertsio proiektu bati atxikiak egon beharko dira eta sortutako enpleguari bost urtez gutxienez eutsi beharko zaio.

4. 2002ko abenduaren 12ko 2204/2002 Erregelamendua (EE), enplegurako laguntzei buruzkoa.

Laguntza horietarako baldintza izanzen da enpleguari eustea hiru urtez gutxienez edo bi urtez enpresa txiki edo ertainen kasuan.

5. 2003ko abenduaren 23ko 1/2004 Erregelamendua, nekazaritzako produktuak ekoitzi, eraldatu eta merkaturatzen aritzen diren enpresa txiki eta ertainendako laguntzei buruzkoa.

Erregelamendu horrek hainbat laguntza mota ezartzen ditu, eta horietako bakoitzari aplikatzekoak zaizkio laguntzaren intentsitatea mugatzen

duten gehieneko desberdinak, esate baterako, nekazaritzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko inbertsioei aplikatzekoa zaie % 50eko gehienekoa 1 zenbakiko helburua duten eskualdeetan dauden enpresen kasuan, eta % 40koa gainerako eskualdeetan daudenen kasuan.

6. 2004ko urriaren 6ko 1860/2004 Erregelamendua (EE), nekazaritza eta arrantzako sektoreetako minimis laguntzei buruzkoa. Erregelamendu honek 2005eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra, eta ezartzen du nekazaritza edo arrantzako sektoreetako enpresei emandako laguntzak merkatu bateratuarekin bateragarriak direla baldin eta onuradun bakoitzeko 3.000 eurotik gorakoak ez badira hiru urtez.

7. Erkidegoaren jarraibideak ingurumenaren aldeko estatuko laguntzei buruz (2001-02-03ko C-37 EEAO). Jarraibideek baimenerako baldintza orokorrak ezartzen dituzte eta ingurumenaren aldeko hiru laguntza mota daudela onartzen dute. a) hondakinen kudeaketaren eta energia aurrezpeneraren aldeko jardunbiderako laguntzak, b) enpresa txiki eta ertainendako laguntza-aholkularitza jardueretarako laguntzak eta c) inbertsiorako laguntzak.

8. Erkidegoaren zedarripena ikerketa eta garapenerako estatuko laguntzei buruz (1996-02-17ko C-45 EEAO), Batzordearen 1998-02-01eko Komunikazioak aldatua eta Batzordearen 2002-05-08ko Komunikazioak luzatua.

Ikerketa eta garapenerako estatuko laguntzei aplikatzekoak zaizkien dirulaguntzen gehieneko kopuruak zehazten ditu.

9. Batzordearen komunikazioa, botere publikoek lursailak eta eraikinak saltzeari laguntzeko elementuei buruzkoa (1997-07-10eko C-209 EEAO).

Botere publikoek lursailak eta eraikinak saltzea zedarritzeko asmoa du lehiaren arauak errespeta-tuz.

10. Eskualdeko helburua duten estatuko laguntzen gainerako jarraibideak (1998-03-10eko C-74 EEAO), Batzordearen komunikazio batek aldatuak (2000-09-09ko C-258 EEAO).

Xedea da Europako eskualde behartsuen garapen ekonomikoa bultzatzea inbertsioaren bidez eta enplegua sortuz.

Jarraibide horien kontuan hartuzkoetan adierazten diren zioetan honakoa ezartzen da, txosten honen helburuari dagokionez: "Eskualdeko laguntzen xedea da eskualde behartsuak garatzea inbertsioei eta enpleguaren sorrerari lagunduz garapen iraunkorreko testuinguru batean. Eskual-

deko laguntzek bertan kokaturiko establezimenduen jarduerak handitu, modernizatu eta dibertsifikatzearen alde egiten dute, bai eta enpresa berriak ezartzearen alde ere. Garapen horri laguntzeko eta balizko deslokalizazioek eragin ditzaketen kalteak arintzeko, laguntza emateko baldintza gisa ezarri behar da inbertsioari eta sortutako lanpostuei gutxieneko epe batez eutsi beharra kasuan kasuko eskualde behartsuan.

11. Erkidegoaren jarraibideak, sektore anitzekoak, inbertsio proiektu handietarako eskualdeko laguntzei buruz (2002-03-19ko C-70 EEAO). Erkidegoaren komunikazio batek, 2003-01-01eko C-263 EEAO n argitaratutakoak, aldatuak.

Inbertsio proiektu handietarako eskualdeko laguntzak, eskualdeko laguntzen inguruan onetsitako jarraibideen mende egoteaz gain jarraibide berariazkoak arautzen dituzte.

Jarraibide horiek arau berariazkoak ere ezarzen dituzte motoredun ibilgailuen, siderurgiaren eta zuntz sintetikoen sektoreetarako.

12. Erkidegoaren jarraibideak krisian dauden enpresak salbatu eta berrantolatzeko estatuko laguntzei buruz (1999-10-09ko C-288 EEAO), Batzordearen 2004ko urriaren 1eko komunikazioak aldatuak.

V. SUSTAPENARI BURUZKO ARAUDIA FORU KOMUNITATEAN

V.1 NAFARROAREN ESKUMENAK ARLO HONETAN

II. atalean aipatu dugunez, Nafarroako Foru Komunitateak ahalmena du dirulaguntzak egilei eta emateko, erabilera edo interes sozialeko jarduerak sustatzeko edo Foru Komunitatearen eskumen materialekoak diren helburu publikoak erdiesaten laguntzeko.

Foru Hobetzeak Nafarroako Foru Komunitateari aitortu eta esleitzen dizkio hizpide dugun arloaren inguruko hainbat eskumen. Horien artean, honako hauek ditugu aipagarri: foru araubidea dela eta, honako arlo hauen gaineko eskumen osoa du: “nekazaritza eta abeltzaintza, ekonomiaren antolamendu orokorrarekin bat” (50.1.a art.); eskumen osoa, arau organikoak adierazten duen moduan, arlo hauetan: “Jarduera ekonomikoaren plangintza eta garapen ekonomikoaren sustapena Nafarroaren barnean”, “Industria eta industri sektoreen birmoldaketarako Estatuak ezarritako planak Nafarroan garatu eta betearaztea” (56.1.a, b eta c); Nafarroako zerga eta finantza-jarduera hitzarmen ekonomikoaren tradiziozko sistemaren bidez arautuko da (45. artikulua).

Aurreko atalean ikusitakoaren arabera, ente publikoek egindako sustapen jardueran eragina du, bereziki, Erkidegoko zuzenbideak, Europako Erkidegoko Itunaren 87tik 89ra bitarteko artikuluek ezartzen dituzten mugen mende jartzen du eta erregulazio luze eta zabala hartzen du gai horren inguruan.

Itunaren 249. artikuluan xedatutakoarekin bat, erregelamenduak irispide orokorra izanen du, haren osagarri guztiak dira betebeharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoa da; zuzentarauak, berriz, haren jasotzailea den Erkidegoko estatuari zuzentarauarekin ezartzen zaion betebeharra emaitza jakin bat lortzea da, baina agintari nazionalen esku uzten da moduaren eta bitartekoen hautaketa. Erabakiaren osagarri guztiak dira betebeharrekoak jasotzaile guztientzat. Azkenik, gomendioak eta irizpenak ez dira lotesleak.

“Estatuko laguntzak” arautzean erabili izan dira, IV. atalean adierazi dugunez, zedarripenak, erregelamenduak, jarraibideak, komunikazioak eta erabakiak, eta horiei lotu behar zaie, aitzakiarik gabe, “estatuko laguntzak” emateko, Europako Erkidegoko zuzenbidea, jakina denez, autonomia, zuzenean aplikatzekoa eta lehentasunezkoa baita (Europako Erkidegoko Auzitegiak 1978ko martxoaren 9an emaniko epaia).

Erkidegoaren arlo honetako araudiak, zuzenean aplikatzekoa bada ere, aurreikusten ditu zenbait alderdi zeinetan estatu kideek neurriak hartu behar dituzten –legegintzakoak, erregelamenduzkoak, administratiboak edo finantzarioak–, euren xedapenak egiaz aplikatu daitezkeen behar direnak alegia.

Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz eman dako doktrinaren arabera (uztailaren 1eko 128/1999 Epaia, adibidez), “barneko zuzenbidetik datorren Erkidegoko araudiaren translazioak bete behar ditu nahitaez Konstituzioan eta estatutuaren eskumenak estatuaren eta autonomia erkidegoen artean banatzeko erabilitako irizpideak, zeinak ez ditu aldatzen Espainia EEE n sartzeak ez eta Erkidegoko arauak aldarrikatzeak ere”. Doktrina hori berretsi egin du apirilaren 5ean Konstituzio Auzitegiak emaniko 95/2001 Epaia, “... auzitegi honek aitortu du autonomia erkidegoek eskumena dutela behar diren xedapenak emateko Europako Erkidegoko zuzenbidea osatzeko eta Erkidegoko arauak euren lurralde esparruan betearazi eta aplikatzeko, betiere, “ratione materiae”, autonomia erkidegoek eskumen hori badute eta gainditzen ez badute Erkidegoko araudiak eta estatuko araudi oinarrikoak edo koordinazioak ezarritako muga”.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateak lege eta erregelamendu bidez gara dezake Erkidegoko zuzenbidea garatu beharreko gaia bere eskumeneko bada Foru Hobetzearen arabera, Erkidegoko arauak eskatu edo baimentzen duenari lotuz.

Nafarroako Foru Komunitateak, arlo honetan dituen eskumenak direla eta, zenbait arau eman ditu sustapen xedearekin; ondotik aztertuko ditugu txosten honi dagokionez. Arau horien xehetasunak txosten honen II. eranskinean daude jasorik.

V.2. INDUSTRIAREN ARLOKO SUSTAPENARI BURUZKO ARAUDIA.

Arlo honetako sustapenari buruzko araudiaren barruan sartu daiteke industria jarduerari ematen zaizkion laguntza edo pizgarri ekonomiko mota desberdinak arautzen dituen: inbertsio eta enplegurako dirulaguntzak, industria lurzorua erosteko, ikerketa eta garapenerako, langileen prestakuntzarako, zerga onurak eta arintzeak, krisian dauden enpresendako laguntzak eta industriarako beste edozein pizgarri.

Ondotik aztertuko dugu, txosten honen xedeari dagokionez, arlo honetan dagoen araudi indarduna:

1. Inbertsioa eta enplegua sustatzeari buruz.

Politika industrialerako eta inbertsio eta enpleguaren sustapenerako neurri koiunturalei buruzko arauak, 1982ko ekainaren 23an onetsiak, 34. artikuluan aipatzen ditu zenbait neurri Nafarroan aktibo finko materialetan inbertsioak egiten dituzten enpresa industrialei finantza laguntza emateko.

Nafarroako 2000. urteko aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarriak ahalmena ematen dio Nafarroako Gobernuari arau horretan jasotzen diren laguntza araubideak Europar Batasuneko araudira egokitzeko.

Legezko gaikuntza horretaz baliatuz, aipatutako 34. artikulua Inbertsio eta enplegurako laguntzen araubide berria ezarri zuen azaroaren 20ko 361/2000 Foru Dekretuaren bidez garatu da. Foru dekretu hori irailaren 17ko 261/2001 eta apirilaren 28ko 91/2003 foru dekretuek aldatu dute. Foru dekretu honetan jasotako laguntza araubideak Europako Batzordeari jakinarazi zitzaion; eta hark aztertu ondoren ez zion eragozpenik jarri.

Aipatutako 361/2000 Foru Dekretuaren funtsezko xedea da, atarikoan adierazten denez, inbertsio eta enplegurako laguntzen araubide berri bat ezartzea, zeharo egokitua Erkidegoak arlo honetan emaniko jarraibideetara. Beharrezkoa zen

hala egitea, kontuan hartzen badugu Erkidegoak eskualde xederako estatuko laguntzei buruz (1998-03-10eko EEAO), eta eskualdeko laguntzak emateko eskualdeen mugaketari buruz emaniko jarraibideen arabera, aurreko laguntza araubideak 1999ko abenduaren 31ra arte zuela indarra, eta beraz beharrezkoa zela inbertsio eta enplegurako laguntza araubide berri bat ezartzea 2000/2006 eperako.

Laguntza hauen xedea da ekoizpenerako inbertsioa indarberritzearen alde egitea, lanpostu berriak sortzea eta daudenak mantentzea, guztia Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan.

Laguntza hori jaso dezakete kapital finkoko inbertsioek, baldin eta zerikusia badute establezimendu berri baten sorrerarekin, dagoen establezimendu bat handitzearekin edo establezimendu baten produktuan edo ekoizpen prozeduran aldaketa sakona dakarren jarduera bati ekitearekin, hura arrazionalizatuz, berregituratuz edo modernizatuz. Era berean, laguntza jaso dezakete kapital finkoko inbertsioek ere, baldin eta itxitako establezimendu bat edo berriz erosi ez balitz itxiko zena eskualdatzeko badira.

Foru dekretu honek hartzen dituen laguntza motak hauexek dira: a) inbertsioaren gaineko dirulaguntza zuzena, haren portzentaje batean gauzatu; b) enplegua sortzeagatiko dirulaguntza, enplegua inbertsioa gauzatzearen ondorioz sortu denean eta c) maileguen korrituen hobarien edo finantza errentamenduaren gisako laguntzak.

Laguntza horiek jaso ahal izateko betebeharrak eta baldintza batzuk ezartzen dira, diruz lagundutako ekoizpen inbertsioak bideragarriak eta akasgabeak direla bermatzeko eta, baldintza horiek bete beharrekin batera, laguntzen onuradunek bete beharreko beharkizunak eta ez-betetzeak dakartzan ondorioak ere ezartzen dira.

Onuradunaren beharkizun horien arteko nagusia da dirulaguntza emateko xedea betetzea (inbertsioak egitea eta, kasua bada, enplegua sortzea). Hemen aztertutako foru dekretuan aipatzen diren gainerako betebeharretatik azpimarratu behar dira, txosten honen xedeari dagokionez, bi hauek:

- “Diruz lagundu beharreko ondasunak enpresaren jarduerari atxikirik eta Nafarroan kokatuta mantentzea, gutxienez 5 urtez edo, epea laburragoa balitz, erabilera aldian, eskuz aldatu, errentan jarri edo haien erabilera hirugarrenei laga gabe. Delako epea inbertsioak abian jartzen direnetik kontatuko da. Epe hori inbertsioak abian jartzen direnean hasiko da”

- “Diruz lagundutako enplegu gehikuntzari bost urtez gutxienez eustea inbertsio proiektua egiten denetik hasita, eskualdeko laguntzaren gehienekoak aplikatzen badira. Bestela gutxienezko aldia bi urtekoa izanen da”

Bi beharkizun horiek Erkidegoak eskualdeko xedea duten estatuko laguntzei buruz emaniko jarraibideek, lehen aipatutakoek, eskatzen dituzte, horiek ezartzen baitute hasierako inbertsiorako laguntzak “kasuan kasuko inbertsioa bost urtez gutxienez mantentzearen mende egonen dira, ordainketarako moduaren edo dirulaguntza bera lortzeko baldintzen bidez”. Beste horrenbeste ezartzen dute enplegua sortzeagatiko laguntzen kasuan, “sortutako enplegua gutxienez bost urtez mantentzearen mende egonen dira” eta.

Ikusten denez, Erkidegoaren arauak ezartzen duen bost urteko epeak gutxienezko izaera du eta beraz estatu kideek eta horretarako eskumena duten eskualdeek ere epe luzeagoak ezarri ahalko dituzte. Nolanahi ere, badirudi bai estatu kideak bai arlo horretako eskumena duten eskualdeak mugatu direla euren araudian ezartzera laguntzen onuradunek bete beharreko baldintza aipatutakoa dela, hau da, gutxienez bost urtez mantentzea inbertsioa edo/eta enplegua.

Bestalde, epe hori handitu nahi izanez gero agertzen zaigun arazoa da horrelako neurri batek Nafarroan inbertitzeko prest dauden enpresetan kontrakoa eragin dezakeela; enpresa horiek ezarpeneko kostu handiagotzat hartuko luketelako, dudarik gabe, epe luzeagoan jasotako laguntzak etorkizunean itzultzeko aukeraren mende egotea. Hortaz, enpresek alde ez egiteko baliabidea da, baina aplikatu behar dena ahaztu gabe lehiari begira ekarriko litzakeen desabantailak, baldin eta laguntza hauek jasotzen dituzten onuradunek bete beharreko baldintzen kopurua gehitu eta Europako gainerako eskualdeetan eskatzen direnak baino gehiago balira.

Horren inguruan, Europako Batzordeak, Eskualde Garapenerako Europako Funtsari (FEDER-EGEF), Europako Gizarte Funtsari (FSE-EGF) eta Kohesio Funtsari buruzko erregelamendu orokor berriaren proposamenean, arau bat sartu du, zeinak ezartzen baitu kasuan kasuko estatuak ziurtatu behar duela enpresa batentzako laguntzak erabiltzen direla zazpi urtez aldaketa handirik izanen ez duen proiektu bat finantzatzeko laguntzeko. Aldaketa horien artean sarturik daude ekoizpen jarduerari uztea, erabat edo hein batean, beste herrialde batetara lekualdatzeagatik. Arau horrek xedatzen du ondoren estatuak eta Batzordea arduratuko direla estatu baten barrenean edo estatu batetik beste batera ekoizpen jarduera deslokaliza-

tu duen enpresa batek ez dezan Europako funtsik jaso. Arau hori prestatzeko fasean dago, eta beraz kontuz hartu behar da. Gaur egun, Kontseiluaren ekainaren 21eko 1260/1999 Erregelamenduak (EE), egiturazko funtsei buruzko xedapen orokorrak ezartzen dituenak, antzeko neurriak xedatzen ditu 30.4 artikuluan, eta epea bost urtera mugatu.

Bestetik, luze jo gabe kontuan hartu beharko da Europako Batzordeak erabaki duela, 2006-2013 eperako, eskualde xederako estatuko laguntzen arloko politikaren erreforma egitea, eta bertan laguntza horien intentsitatea apaltzearen alde agertzen dela. Batzordeak proposatzen du eskualdeko xedea duten estatuko laguntzetarako aukera ematea, Itunaren 87.3 artikulua a) letran oinarrituz, Erkidegoko (EB-25) batez bestekoaren % 75etik beherako BPGa duten eskualdeen kasuan. Laguntzen intentsitatea ezartzen da laguntza jasotzen duen enpresaren tamainaren arabera (handia, ertaina, txikia) eta dagokion eskualdeko per capita BPGaren arabera. Nafarroari dagokionez, proposamen horrek bere horretan aurrera eginez gero, eta egun dauzkagun datuekin, Nafarroak EB-25 Erkidegoko batez bestekoaren % 75etik gorako BPGa duenez etorkizunean ezin izanen lieke inbertsiorako laguntzarik eman enpresa handiei. Baina Batzordeak aurreikusirik dauka eskualdeek laguntzak emateko duten malgutasun tarte handitzea, eta laguntza horizontalen gainerako arauak berrikusiko ditu, besteak beste, I+Grako laguntzak, berrikuntzarakoak, enpresa txiki eta ertainendako direnak eta minimis motakoak.

Hemen aztertutako foru dekretuak laguntza mota horren onuradunei ezartzen dizkien betebeharre dagokienez, 12. artikulua xedatzen du betebeharrak horiek ez betetzeak emandako onurak baliogabetzea ekarriko duela eta, kasua bada, jasotakoak itzuli beharra eta berandutza-korritua eskatzea. Laguntza hein batean edo osorik itzuli egin beharko da, halaber, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra ezartzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legearen 21. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta ondorioekin; arau horretan laguntza itzultzeko zortzi arrazoi edo kausa aipatzen dira eta horietako batzuk aurreikusirik daude foru dekretu horretan. Aurrekoaz gain, aintzat hartu behar dira halaber Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua arabera itzulketa eragiten duten arrazoiak, funtsean dirulaguntzei buruzko foru legeak aipatzen dituenak dira.

Araudi horrek itzulketa eragiteko aipatzen dituen arrazoiak onuradunaren ez-betetzeetan dautza

eta haien ondorioa da laguntza eman zuen organoak, espedientea ireki ondotik, ebazpena ematea interesatuari adieraziz dirulaguntzaren itzulketa nola eta zein epetan ordaindu behar duen. Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko dirusarrerak dira (Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 21.3 artikulua) eta beraz, itzulketa epearen barruan ez bada egiten premiamendu bidezko dirubiltzaren prozedura aplikatuko da.

Aurrekoarekin lotuta, komeni da aipatzea Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 31.4 artikulua zer ezartzen duen ondasun inbentariagarriak erostea, eraikitzea, zaharberritzea eta hobetzea dirulaguntzeko moduko gastutzat hartzen den kasurako. Manu horrek xedatzen du oinarri arau-emaeleek finkatu beharko dutela onuradunak zenbat denboraz erabili beharko dituen ondasunak dirulaguntza emateko helburu zehatzerako; epe hori ez da bost urtetik beherakoa izanen erregistro publiko batean inskribatzekoak diren ondasunen kasuan, ezta bi urtetik beherakoa gainerako ondasunen kasuan: "Erregistro publiko batean inskribatzekoak diren ondasunen kasuan, eskrituran ere agerrarazi beharko da inguruabar hori eta halaber emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, eta alderdi horiek kasuan kasuko erregistro publikoan inskribatu beharko dira". Lehen aipatu dugun erabileraren betebeharra ez betetzeak, edozein kasutan ondasuna besterentzean edo kargatzean gertatuko baita, dirulaguntza itzuli beharra ekarriko du, eta ondasuna itzulketaren ordainketari atxikirik gelditu da, zein den ere haren edukizalea. Besterentzea edo kargatzea dirulaguntza eman duen administrazioak baimendua denean ez da erabilera betebeharraren ez-betetzetzat hartuko.

Horrenbestez, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 31. artikulua aurreikusten du, ondasun inbentariagarriak erosi, eraiki, zaharberritu eta hobetzea finantzatzen duten dirulaguntzen kasurako, berme errealeko kasu bat, eskritura publikoan agerraraziko dena eta kasuan kasuko erregistro publikoan inskribatuko dena, administrazioari lehentasunezko eskubidea ematen diona haren bidez kobratzeko itzuli beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa, berandutza korrituak eta ezarritako zehapen ekonomikoa ere. Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen artikulua horrek, azken xedapenetatik lehenean xedatutakoari jarraikiz, oinarritzko izaera du eta, gure iritziz, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen antzeko agindurik aurreikusirik ez badago ere, Nafarroan aplikatzekoa da Foru Hobetzearen 56.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta beraz, hura aplikatuta dirulaguntzaren xede diren ondasunen gaineko berme errealak eratzeko eskatu beharko da, lehenago aipatutako irismenarekin.

Laburtzeko, gure iritziz inbertsio eta enplegurako laguntzen araubide hori erregulatzen duen foru dekretuak ezartzen ditu betebeharrak eta baldintza batzuk, batetik, eta onuradunak bete beharreko beharkizun batzuk, bestetik, gehienbat Erkidegoko araudiak berak eskatzen dituenak. Horrekin batera, dirulaguntza hein batean edo osorik itzultzeko arrazoen zerrenda bat ere ezartzen da, betebeharrak betetzen ez diren kasurako, dirulaguntzak bilatzen duen interes publikoko helburua erdiesten dela bermatzeko, eta Dirulaguntzei buruzko Foru Legeak aurreikusten duen zehapen araubidea aplikatzekoa dela deklaratzeko.

Foru Dekretuak ez du aurreikusten Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 31. artikuluan ondasun inbentariagarriak erosi, eraiki, zaharberritu eta hobetzea finantzatzen duten dirulaguntzen kasurako aurreikusten den berme errealearen aukera. Baina manu hori aplikatzekoa da Nafarroako Foru Komunitatean eta beraz berme errealak era daitezkeen eskatu behar da arau horrek aurreikusten duen irismenarekin. Neurri horrek, administrazioaren esku uzten duenez lehentasunezko eskubidea berme errealearen bidez kobratzeko itzuli beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa, berandutza korrituak eta ezarritako zehapen ekonomikoa, balego, sendotzenago du foru dekretu honetan aurreikusitako laguntza araubideak bilatzen dituen interes publikoko helburuak erdiestea eta helburu horiei atxiki zaizkien funts publikoen erabilera egokia.

2. Ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuetarako laguntzak.

Politika industrialerako eta inbertsio eta enpleguaren sustapenerako neurri koiunturalei buruzko Arauak, Nafarroako Parlamentuak 1982ko ekainaren 23an onetsiak, aipatzen ditu laguntzarako zenbait neurri aipatzen ditu Nafarroako lehia maila eta berrikuntza gaitasuna handitzeko eta teknologiararen arloan duen kanpo-mendekotasuna apaltzeko, arreta emanez bereziki ikerketa eta garapen teknologikoren sustapenari. Arau hori betearazi eta garatzeko eman zen ikerketa eta garapen teknologikorako laguntzen erregelamendua, irailaren 16ko 2/1982 Foru Dekretuaren bidez onetsia, eta horixe izan da oraintsu arte helburu horietarako laguntzak ematea arautu izan duen lege araubidea.

Europako Batzordeak onetsi zuen "Erkidegoaren zedarripena, ikerketa eta garapenerako estatuko laguntzei buruzkoa", 1996ko otsailaren 17ko EEAOn argitara emana, jarduera horietako laguntza publiko guztiak lotu behar zaizkion esparru orokorra izan zedin.

Nafarroako Gobernuak, 1999ko martxoaren 15ean onetsitako erabakiaren bidez Nafarroako

2000-2003 urteetako plan teknologikoa onetsi zuen, enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzeko eta enplegua sustatzeko asmoarekin, bai eta industriaren oinarri zientifikoa eta teknologikoa sendotzeko. Plan teknologikoa hobeki garatu eta betetzeko Foru Komunitateko "Agencia Navarra de Innovación y Tecnología, S.A" kapital publikoko sozietatea sortu zen.

Europar Batasuneko arlo horretako araudira egokitzeko xedeaz, azaroaren 20ko 360/2000 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen ikerkuntza eta garapenari eta berrikuntzari laguntzak emateko araubidea. Foru dekretu horren helburu nagusia da, arikoan jaso denez, "ikerkuntza eta garapenerako jarduerentzako laguntza araubide bat ezartzea, Europako Elkartek emandako jarraibideei goitik behera egokitua, enpresa eta ikerkuntza zentroen potentzialitatea Nafarroako Plan Teknologikoan ezarritako norabidean eta bertako helburuak lortzeko bidean jartzeko". Foru dekretu horretan jasotako laguntza araubidea Europako Batzordeari jakinarazi zitzaion; eta hark ez zion eragozpenik jarri.

Laguntza horien helburua, foru dekretuaren arabera, enpresen lehiakortasun-maila hobetzea da, produktuaren eta/edo prozesuaren teknologia sartuz eta ikerketa zentroen eta zentro teknologikoen maila teknologikoa ere hobetzea. Xede hori honako hauei laguntza emanez gauzatzen da: funtsezko ikerkuntza eta industri ikerkuntzarako eta lehian sartu aurretiko garapenerako jarduerak; aldeztu aurretiko bideragarritasun teknikoaz aztertze-lanak egitea eta, azkenik, enpresa txiki eta ertainen aldeko patenteak erregistratu eta mantentzeko jarduerak sustatzea (1. art.).

Laguntza hauen onuradunak honako hauek izaten ahalko dira: Nafarroako enpresa, talde, enpresa elkarte edo batasunak, ikerkuntza zentroak eta nor bere kasa jarduten duten ikerlariak, baina patenteetarako laguntzen kasuan, txikitatuta eta ertaintzat hartzen diren enpresak baino ez dira izanen onuradunak (2. artikulua).

Laguntza hauen ondorioetarako, honako gastu eta inbertsio hauek eskuratu ahalko dituzte (3. artikulua):

Ikerkuntza jarduerari zuzenean egozten ahal zaizkion langileri gastuak; tresnak, materialak, lurrak eta egoitzak erosi edo erabiltzeko gastuak; aholkularitza zerbitzuen eta antzekoen kostuak; gastu osagarriak.

Laguntzak fondo galdurako dirulaguntzak dira ikerketa, garapena eta berrikuntza proiektuen gastuetarako eta horietarako aurrerapenak, korriturik gabe itzuli beharrekoak.

Azken finean, txosten honen gaiari dagokionez, foru dekretu horrek betebeharrak eta baldintza batzuk ezartzen ditu dirulaguntzaren xedearekin zerikusia dutenak, bete behar direnak laguntza jaso ahal izateko; era berean, laguntza emateak eta onuradunak hura onartzeak bete beharreko beharkizun batzuk bere gain hartzea dakar. Betebeharrak, baldintza eta beharkizun horiek berriki onetsitako Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen eskatutakoekin osatu behar dira. Onartutako betebeharrak betetzen ez badira, aurreikusirik daude kasu batzuk laguntza bertan behera uztea eta, egokia bada, horiek itzuli beharra ekarriko dutenak.

Foru dekretuak ez du inolako klausularik ezartzen enpresen deslokalizazioa saihesteko, baina ondasun inbentariagarriak erosi, eraiki, zaharberritu eta hobetzea diruz laguntzeko modukotzat hartzen denean, Nafarroan aplikatu ahal da Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 31.4 artikulua, onuraduna behartzen duena diruz lagundutako ondasunak dirulaguntza emateko helburu zehatzetarako erabiltzera epe batez, bost urtez gutxienez, erregistro publiko batean inskribatzekoak diren ondasunen kasuan, eta bi urtez gainerako ondasunen kasuan, lehendabizikoen kasuan beste betebeharrak erantsi bat dutela, alegia eskrituran agerraraztea halakoak direla, berme erreala izan dadin, administrazioari kobratzeko lehentasunezko eskubidea ematen diona ondasun horien gainean, emandako dirulaguntzaren erabileraren betebeharra ez bada betetzen.

3. Krisian dauden enpresendako laguntzak

Krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko estatuko laguntzei buruz Erkidegoak emaniko jarraibideak (1994ko abenduaren 23ko EEAO) onetsirik, Europar Batasunak zenbait neurri ezarri zituen estatuko laguntza horien gaineko kontrol zorrotza egiteko.

Erkidegoaren jarraibide horiek onartzen dute badirela zenbait inguruabar justifikatu dezaketenak estatuko laguntzak ematea krisian dauden enpresei sostengua eman eta berregituratzeko prozesu bat betetzen laguntzeko. Zenbait baldintza eta kontrol betez gero, beraz, onartzen dira salbamendu laguntzak izenekoak, enpresa baten finantza arazoak epe motz batez, oro har sei hilabetez gehienez, aterabidea emateko pentsatuak, epe luzerako konponbidea bilatzeko aukera dagoelarik, eta berregituratzeko laguntzak, enpresa baten epe luzeko bideragarritasuna berreskuratzeko irismen handiko plan egingarri eta koherente baten barruan ulertuta.

Aurrerago, krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko estatuko laguntzei buruzko erki-

degoaren jarraibide berriak argitaratu ziren (1999ko urriaren 9ko C.288 EEAO). Jarraibide berriekin Batzordearen asmoa da hobeki kontrolatzea estatuko laguntzak, ikusirik krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzak gehitu zirela, eta aplikatzekoak ziren arauak zorrotzu zituen Europako Erkidegoko Itunaren 87. artikulua araberaren salbuespenezko izaerarekin bat. (Geroago ere beste jarraibide batzuk argitaratu dira, 2004-10-01eko C-244 EEAO).

Nafarroan, laguntza araubide hori krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legeak eta foru lege hori Europar Batasunean indarra duten zuzentarauetara egokitzeko arauak ematen dituen otsailaren 3ko 26/2003 Foru Dekretuak arautzen dute.

Laguntza horien helburua da krisian dauden enpresak sorostea eta berregituraketa prozesu bat betetzeko sostengua ematea.

Araudiak bi laguntza mota bereizten ditu:

- **Salbamendurako laguntzak:** Haien helburua da enpresari bere funtzionamendua bermatzeko behar-beharrezkoa duen likidezia ematea, haren egoera aztertu eta oneratzeko plana prestatu arte. Maileguak edo abalak dira, 600.000 eurokoak gehienez.

- **Berregituratzeko laguntzak:** Haien xedea da berregituratze edo oneratzeko planean aipatzen diren eragiketa eta neurriak abian jartzea, enpresaren lehiakortasuna eta epe luzerako bideragarritasuna berreskuratzeko. Neurri horiek finantzatzeko dirulaguntzak dira, maileguen korrituen hobariak, zorrak zatitzeko eta geroratzeko eta likidazio oinarri negatiboak konpentsatzeko baldintza bereziak. Laguntza guztien batura ez da izan berregituraketaren ondorioz sendotu gogo diren lanpostu finko bakoitzeko 18.000 euroko dirulaguntza aplikatzeak ekarriko lukeena baino handiagoa.

Laguntza horiek eskuratu ahalko dituzte Nafarroan kokaturik dauden enpresak, sortu berriak ez badira eta krisian badaude eta krisi horretatik bakarrik ateratzerik ez badute, ezarritako betebeharrak betez gero eta krisia gainditzeko behar diren neurriak hartzeko prest egonez gero.

Laguntzen jasotzaileek nabarmen lagundu behar dute berregituraketa plana aurrera eramaten euren baliabideekin edo kanpoko finantzazioaz baliatuz, eta laguntzen zenbatekoa eta intentsitatea berregituraketa gauzatu ahal izateko behar dena mugatuko dira, eta ez dira inola ere erabili-

ko inbertsio berriak finantzatzeko enpresa berriz bideragarria izan dadin ezinbestekoak ez badira.

Araubide horren mendean emandako laguntzak zenbait kasutan banan-banan jakinarazi behar zaizkio Europako Batzordeari. Adibidez, jakinarazi behar dira enpresa txiki eta ertainak ez diren enpresei emanikoak, enpresa bakar bati emanikoak, hamar milioi eurotik gorakoak badira eta sei hilabete baino iraupen luzeagoko salbamendu laguntzak.

Laguntza hauen onuraduna beharturik dago laguntzak emateko ebazpenean ezartzen diren konpromisoak eta betebeharrak betetzera, eta horietako bat izanen da emandako aurrerapenak edo maileguak itzultzea eta finkaturiko betebeharrak beteko direla ziurtatzeko behar adina bermeak ematea.

Enpresa onuradunak betebeharrak ez bete-tzeak emandako laguntzak bertan behera uztea eta kontzeptu horretan jasotako zenbatekoak itzuli beharra ekarri ahal du. Kasu honetan aplikatzekoak dira Dirulaguntzei buruzko Foru Legean aurreikusten diren itzulketa kasuak eta arau-hausteen eta zehapenen araubidea.

4. Beste laguntza batzuk Industria Departamentuaren inguruan.

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak laguntzak emateko zenbait lerro dauzka ezarritik, lehen aztertu ditugunez gain, eta bi ataletan sailkatu ahal ditugu: a) "minimis" araubideari lotutakoak eta b) babes berezia behar duten gizataldeentzako laguntzak. Ondotik laguntza araubide horiei buruzko ikuspegi orokorra emanen dugu, eta azterketa zehatzagoaren berri izateko II. eranskinera jo beharko da.

A. "Minimis" araubideari lotutako laguntzak.

Oro har, enpresa onuradunak beharturik daude Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuari jakinaraztera "minimis" kontzeptuan aurreko 3 urteetan eskuratu dituzten laguntzak, eta laguntza horien baturak erkidegoko araudiak finkatutako gehieneko kopurua, 100.000 euro, gaindituz gero laguntza hori soberakina kenduko litzaioke, eta enpresa beharturik egonen da itzultzera ordurako kobraturik badauka.

A1. Enplegurako laguntzak kooperatibetan eta lan sozietateetan:

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak irailaren 23an emaniko 90/2004 Foru Aginduaren bidez arauturik, aurreikusirik daude enplegurako laguntzak langabetuak bazkide langile edo lan bazkide gisa hartzeagatik, ibilgetu mate-

rialean edo ez-materialean egindako inbertsiorako eta laguntza teknikorako.

Dirulaguntzaren xede den inbertsioa bost urtez gutxienez mantendu beharko da eta sortutako enplegua ere hiru urtez mantendu beharko da gutxienez.

A2.- Lehiakortasuna hobetzeko laguntzak:

Maiatzaren 23ko 208/1991 Foru Dekretuak, apirilaren 28ko 121/1997 Foru Dekretuak aldatutakoak, arautzen ditu.

Urtero egiten da deialdia, eta 2004ko ekitaldiko Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak ekainaren 17ko 66/2004 Foru Aginduren bidez egin zen.

Laguntza horien xedea da hein batean diruz laguntzea kanpoko zerbitzuen kontratazioak dakartzan kostuak, zenbait arlo eta jardueratan, hala nola kudeaketa sistemak, berrikuntza, teknikarien gaikuntza eta dinamizazioa eta sentsibilizazioa.

A3.- Kanpoan ezarpen iraunkorra izateko programa:

Xedea da laguntzak ematea enpresei kanpoan ezartzeko, Nafarroako enpresa nazioartera ateratzeko 2004ko planaren barruan.

Urteko dirulaguntzaren gehienekoa, proiektu bakoitzeko, 30.000 eurokoa da, eta enpresa bakoitzeko laguntzaren gehienekoa, guztira, 60.000 eurokoa da, hiru urtez gehienez jasotzeko.

Deialdia arautzen duen foru aginduan laguntza hauek eskatzeko ezartzen diren baldintzetako bat da "ezarpenak ez eragitea Foru Komunitatean enpresen deslokalizazioa edo balio erantsiaren sormenaren galera". Deialdi hori Dirulaguntzei buruzko Foru Legeak ezartzen duen arau-hausteen eta zehapenen araubidearen mende dago.

A4.- Lanean aukera berdintasuna sustatzen duten inbertsioetarako laguntzak:

Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira aktibo finko materialetan eginiko inbertsioek sortutakoak, baldin eta zerikusia badute zerbitzuak, aldagelak eta antzeko gelak, emakumeentzat eta gizonezkoentzat bereizirik, eraikitzearekin edo lanpostuak edo ekipoak egokitzearekin, oztopo arkitektonikoak kentzearekin edo ezgaituentzako babes pertsonaleko neurriak ezartzearekin. Laguntza horiek jaso ahal izateko beharrezkoa da emakumeak eta gizonak, bietatik, edo ezgaituak kontratatzea. Gehieneko dirulaguntza 9.000 eurokoa izanen da.

A5.-Energia berriztagarrien ustiaketakarako instalazioak sustatzeko laguntzak:

Horien xedea da laguntzak ematea energia berriztagarrien ustiaketakarako instalazio txikietarako.

Laguntza horiek zuzentzen zaizkio izaera publiko nahiz pribatuko edozein pertsona fisiko edo juridikori, eguzkiko energia fotovoltaikoa, eguzkiko energia termikoa eta energia eolikoa ustiatzeko potentzia txikiko instalazioetan inbertsioak egiten baditu. Enpresen kasuan, txikiak edo ertainak izan beharko dira laguntza jasoko badute.

Laguntza horien onuradunak Dirulaguntzei buruzko Foru Legeari lotu beharko zaizkio. Era berean, jardunean mantendu beharko dituzte laguntzaren xede diren instalazioak bost urtez gutxienez; eta hori bete ezean laguntzak itzuli beharko dituzte foru lege horren 21. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

B.- Babes berezia behar duten gizataldeei zuzendutako laguntzak:

B1.- I+G kalifikazioa duten proiektuak eta enpresak bultzatzea:

Laguntza horiek Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatzen ditu eta Ministerioaren 1999ko uztailaren 15eko agindu batean daude arauturik.

Horien xedea da enplegua sortzen duten enpresa proiektuak abian jartzea, toki korporazio batek edo autonomia erkidegoko batek sustatu eta sostengatzen baditu.

Dirulaguntzen onuradunak beharturik daude enplegu maila mantentzera hiru urtez gutxienez.

B2. Enplegurako zailtasun handiagoa duten gizataldeen laneratzea:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatzen ditu eta apirilaren 26ko 130/1999 Foru Dekretuan, aurrekoa aldatzen duen otsailaren 4ko 26/2002 Foru Dekretuan eta 1999ko uztailaren 27ko Foru Aginduan daude arauturik.

Xedea da lan merkatutik bazterturik dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzen eta laneratzen laguntzea, laneratze zentroek edo enpresek, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko ebazpen batez halakotzat hartu direnek, kontratatuz.

Laguntza horien onuradunak laguntzen xedea rekin zerikusia duten betebeharrak batzuen mende daude, eta horiek ez betetzeak laguntzak itzuli beharra ekarri ahal izanen du, Dirulaguntzei buruzko Foru Legean araututako baldintzetan.

B3.- Autonomoentzako enplegua sortzeko laguntzak:

Xedea da enplegua sortzea sustatzea lanik ez duten langileak autonomo gisa laneratzuz. "Minimis" izaerakoak dira, eta beraz Batzordeak urtarilaren 12an emaniko 69/2001 (EE) Erregelamenduan ezarritako baldintzen mende daude.

Laguntzaren zenbatekoa 3.610 euroko dirulaguntza bat da pertsona bakoitzeko, eta 300 euro gehituko zaizkio 40 urtetik gorakoa edo emakumezkoa izateagatik.

Laguntza horien onuradunak dirulaguntzarako eskaera oinarritzeko erabilitako aktibo finko material berdinak edo antzekoak mantendu beharko ditu. Urtero, 37 hilabeteko epean, diruz lagundutako autonomoak Nafarroako Enplegu Zerbitzuan ziurtagiriak edo egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu frogatzeko egunean dagoela JEZaren, autonomoen araubide bereziaren edo kasuan kasuko lanbide elkargoaren ordainketan.

Betebehar horiek ez betetzeak emandako dirulaguntzak bertan behera utzi edo baliogabetzea ekarriko du, eta egiaz jasotakoak Nafarroako Ogasunari itzuli beharra, baliogabetzea jakinarazi eta hilabeteko epean.

V.3. NEKAZARITZAREN ARLOKO SUSTAPENARI BURUZKO ARAUDIA.

1. Inbertsio eta enplegurako laguntzak, Itunaren I. eranskinean sartu gabeko nekazaritzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko nekazaritzako elikagaien industriarako.

Nekazaritzako elikagaien industriei inbertsio eta enplegurako zuzeneko laguntzak emateari dagokionez –horien sustapena Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren eskumena da– azaroaren 20ko 361/2000 Foru Dekretua, lehen aztertu duguna, aplikatu eta garatzeko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak 2001eko uztailaren 2an emaniko Foru Agindua bidez arauturik daude.

Laguntzak industria berria ezartzeko proiektuetan egindako inbertsioaren % 22rainokoak izan daitezke, eta handitu edo hobetzeko proiektuetakoaren %20rainokoak, eta 3.005,06 eurokoa sortutako mugagabeko lanpostu bakoitzeko.

Laguntzen onuradunak diren enpresek konpromisoa hartzen dute, besteak beste, dirulaguntzaren xede izan diren ondasunak 5 urtez gutxienez edo balio bizitza osoan, txikiagoa bada hirugarrenei ez eskualdatu, errentan eman edo lagatzeko erabil dezaten.

Konpromiso hori dela eta, aipatutako foru aginduak honakoa xedatzen du: "Negozioa ixten dela-ko jarduera bukatzen baldin bada, lana uzten bada sei hilabete baino denbora luzeagoz, edo lantegia edo enpresaren helbide soziala Nafarroatik kanpora eramaten bada, hala nola krisi espedienteko, enpleguaren edo lanaldiaren erregulazioko eta ordainketa etendurako zein porrot egoerarik gertatzen bada, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak zilegi izanen du emandako laguntza osoak edo zati bat kendu eta, hala behar izanez gero, kobraturiko kopuruak Nafarroako Ogasunari hilabeteko epean itzularaztea, betiere egoera horiek bost urteko epean gertatzen badira, laguntzak emateko behin betiko ebazpenaren egutetik hasita. Nolanahi ere, enpresa behartuta dago Departamentu honi egoera horien berri ematera, gertatzen diren unetik beretik".

Inguruabar horiek dira Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak industria enpresarako inbertsio eta enplegurako laguntzak arautzeko otsailaren 1ean emaniko 12/2001 Foru Aginduan jasotzen diren berdinak, eta eragin dezaketenak emandako dirulaguntza osotara edo hein batean itzuli beharra.

2. Nekazaritzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko laguntzak, Nafarroako landa garapenaren 2000-2006 urteetako planaren barruan.

Nekazaritzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko laguntzak Nafarroako Nekazaritza garatzeko 2000-2006 Programaren barrenean gertatzen dituen apirilaren 17ko 163/2000 Foru Dekretuan arauturik daude, eta Kontseiluak maiztaren 17an emaniko 1257/1999 Erregelamenduan (EE), Nekazaritzako Orientabide eta Bermerako Europako Funtsaren (FEOGA) kargurako landa garapenerako laguntzari buruzkoan alegia.

Diruz laguntzeko modukoak dira ondasun higiezinak eraiki eta erostea, makineria berria erosi eta paratzea eta gastu orokorrak.

Laguntza horien xede diren inbertsioak Nafarroan egin beharko dira eta Europako Erkidegoa eratzeko Itunaren I. eranskinean jasotako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko erabiliko dira, salbu eta arrantzakoak. Atal horretan sartu ahalko dira halaber industriei eta basogintzako produktuei dagozkien inbertsioak.

Foru dekretu horrek ezartzen du zein diren onuradunek bete beharreko beharkizunak, Dirulaguntzei buruzko Foru Legeak ezarritakoaren ildoan; beharkizun horien helburua da ziurtatzea dirulaguntza zertarako ematen den helburu hori beteko dela eta mantenduko dela bost urtez. Hori

dela eta, bost urteko epe horretan ezartzen da emandako laguntzen irismena berraztertzeo aukera eta, egokia bada, horiek itzuli beharra.

Laguntza haiei aplikatzekoa zaie Dirulaguntzei buruzko Foru Legeak ezartzen duen arau-hauste eta zehapen araubidea, eta horrez gain, erkidego-ko araudiarekin bat, aitorten faltsu bat zabarkeria larriaren ondorioa izan dela frogatuz gero, onuraduna bazterturik geldituko da kasuan kasuko urte naturalerako 1257/1999 Erregelamenduaren (EE) kasuan kasuko kapituluaren sarturiko landa garapene-ko neurri orotatik. Nahita eginiko aitorten faltsu baten kasuan, onuraduna hurrengo urtean ere geldituko da bazterturik.

3. Inbertsiorako laguntzak arrantzan eta akuikulturaren.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak 2001eko abuztuaren 13an emaniko Foru Aginduak arautu zituen, eta haien helburua da arrantza eta akuikulturaren sektorerako laguntzak ezartzea Nafarroako Foru Komunitatean, Kontseiluaren 2792/1999 Erregelamenduaren (EE) esparruan.

Foru aginduak aintzat hartzen ditu, gainera, arrantzaren eta akuikulturaren sektorerako estatuko laguntzak aztertzeo jarraibideak (2001/C19/05), bai eta arrantzaren sektorerako egiturazko laguntzen gaineko oinarritzko araudia ezartzen duen abenduaren 22ko 3448/2000 Errege Dekretua ere. Batzordeak, 2001eko maiatzaren 17ko Erabakiaren bidez, laguntza araubide hau Europar Batasunaren Itunarekin bateragarria dela adierazi du.

Foru agindu horrek ezartzen du, lehen aztertutako laguntza araubideak bezalaxe, zein diren onuradunek bete beharreko beharkizunak, dirulaguntza zertarako ematen den helburu hori beteko dela eta bost urtez mantenduko dela ziurtatzen dutenak. Hori dela eta, bost urteko epe horretan ezartzen da emandako laguntzen irismena berraztertzeo aukera eta, egokia bada, horiek itzuli beharra.

VI. SUSTAPENARI BURUZKO ARAUDIA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO TOKI ENTITATEETAN.

Enpresentzako laguntza programak sustatzearen gaineko erregulazio zehatza jasorik dago Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen V. tituluan, jarduera eta zerbitzuei buruzkoan (221etik 223ra bitarteko artikulak), zeinak sektore pribatuarendako laguntzak ematea arautzen baitu, interes publikoko jarduera pribatuak sustatzeko neurria den aldetik. Bestalde,

Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen kasuan legeak berak oinarritzotzat hartzen dituen agindu ia guztiak dira aplikatzekoak, aplikazio esparru subjektiboa toki administrazioaren parte diren entitate guztietara zabaltzen baitu.

Erregulazio horretatik honako postulatu orokor hauek nabarmendu daitezke:

- Dirulaguntzen hartzaileak entitateak edo partikularrak baizik ez daitezke izan, euren jarduera edo zerbitzuekin toki eskumenekoak direnak osatu edo ordeztan dituztenak.

- Ez dute lege babesik liberaldutasun hutsari zor zaizkion dirulaguntzak; legean aurreikusirik ez dauden tributu salbuespenak edo hobariak zuzenean nahiz zeharka ematea dakartenak espresuki debekaturik daude.

- Ematea eragin duen helburuari atxikirik daude dirulaguntzak, eta ezarritako baldintzei loturik, eta ezin dira beste erabilerearako baliatu. Toki administrazioak ahalmena du aurrekoa betetzen dela egiaztatzeo.

- Laguntzak ematea printzipio hauen mende egonen da: publizitatea, berdintasuna, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, bereizkeriarik eza eta eraginkortasuna eta efizientzia baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean.

Bestetik, Europar Batasunak hainbat ekimen gauzatu ditu toki garapena sustatzeko politikei laguntzeko.

Testuinguru horretan eta udal autonomiaz baliatuz, zenbait toki entitatek enpleguaren eta inbertsioaren sustapenerako laguntzei buruzko udal ordenantzak onetsi dituzte. Ordenantza horien helburua da, oro har, toki entitate bakoitzaren lurralde esparruan jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzen dituzten enpresa proiektuak bultzatzea eta sostengatzea.

Txosten honen xedea ez da ordenantza horiek guztiak zehatz-mehatz aztertzea, baina haien ezaugarri orokorrak azpimarratuko ditugu ondotik:

- Laguntzen helburua da kasuan kasuko herrian enpresak paratu eta handitu eta enplegua sustatzeko inbertsioak sustatzea. Kasuren batean aurreikusten da halaber inbertsioak sustatzea industria jarduerak ingurumenaren gainean duen eraginaren prebentzioan, zuzentzean eta kontrolean.

- Laguntzen onuradunak dira dagokion udalerrian kokaturik dauden edo kokatu nahi duten enpresak.

- Besteak beste honako laguntza mota hauek aurreikusten dira: a) industriarako lurrak edo dagoeneko eraikirik dauden nabeak edo instalazioak erosi, b) eraikin industrialak egin edo horiek handitu edo eraberritzea, c) ekoizpeneko aktibo finkoak erosi, d) lanpostuak sortu, e) autoenplegua eta f) nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioetako inbertsioak.

- Laguntzen zenbatekoa aldatzen da toki entitate batzuetatik besteetara, baina oro har egin beharreko inbertsioaren gaineko portzentaje bat aplikatzen da, eta zenbateko finko bat sortutako lanpostu bakoitzeko.

Enpresak bertan geldituko direla ziurtatzeko eskatzen diren bermeak, orokorrean hauexek izaten dira:

1. Industriarako lurrak edo dagoeneko eraikirik dauden nabeak edo instalazioak erosteko laguntzen kasuan, bankuko abala, enpresak jarduerari dirulaguntza eman eta ondoko bost urteetan uzten badio dirulaguntza itzultzea bermatuko duena. Bankuko abal horrek bermatuko du halaber dirulaguntza ematean ezarritako enplegu maila.

2. Ekoizpeneko aktibo finkoak erosteko dirulaguntzan, toki entitateak onartutako behar adinako bermea. Berme hori ezeztatu egingen da diruz lagundutako industria jarduerak bost urte eman ondoren jardunean. Bost urteko horren barruan aurkeztutako bermea gauzatu ahal izanen da diruz lagundutako aktiboak besterendu, galdu edo hondatzen direnean ordeztu edo hobetu gabe, horiek enpresaren ekoizpena kaltetzen eta enpleguaren iraunkortasunean eragina badute.

3. Langile batek, hura kontratatzeagatik dirulaguntza jaso den kasuan, zerbitzuak emateari uzten badio enpresa onuradunean kontratuaren bost urteak bete aurretik, beste langile bat jarri beharko du haren ordeztu, kontratuaren ezaugarriak eta laguntzak eskuratzeko baldintzak lehengo berak izanik, aurreko langileari enpresan baja eman eta bi hilabeteko epean, gehienez.

4. Oro har, inbertsioagatik laguntzen onuradunek dirulaguntza eman eta ondoko bost urteez, gutxienez, edo erabilera bizitza osoan, txikiagoa balitz, diruz lagundutako aktibo materialak mantendu beharko dituzte eta ezin izanen dituzte beraz saldu, errentan eman edo laga, antzeko beste batzuekin ordeztu ezean. Toki entitatearen batean, dirulaguntza kobratu aurretik, onuradunek bankuko abala aurkeztu beharko dute onartutako dirulaguntzaren zenbatekoa duena, dirulaguntza emateko ebazpenean eskatutako baldintza guztiak beteko direla bermatzeko, eta laguntza bakoitzeko adierazitako epean.

5. Oro har ere, enplegua sortzeko laguntzen onuradunek bi edo bost urtez gutxienez mantendu beharko dute plantillako batez besteko maila gehi dirulaguntzaren xede den sortutako enplegua.

6. Beste kasu batzuetan eskatzen da ezen langile batek, hura kontratatzeagatik dirulaguntza jaso bada, enpresa onuradunean zerbitzuak emateari uzten badio kontratua amaitu baino 37 hilabete lehenago, baja eman eta ondoko hogeita hamar egunetan ordeztu behar dela ezaugarri berdina dituen beste langile batekin. Plantillaren murrizketak laguntza ezeztatzea, baliogabetzea edo itzultzea ekarriko du. Enpresa onuradunek inbertsioari eta jarduerari gutxienez hiru urtez eusteko konpromisoa hartuko dute.

7. Enpresa jarduerari uzteko egoeran suertatzen bada, negozioari utzi, ordainketak eten, lanari sei hilabetez baino gehiagoz utzi, porrota, krisi espedienteak, enplegu edo lanaldi erregulazioa, sozietatearen helbidea aldatzea, etab. dela eta, horren berri eman beharko dio toki entitateari, eta honek emandako laguntza bertan behera utzi edo murriztea erabaki dezake, betiere egoera horiek dirulaguntza ematea jakinarazi ondoko bost urteetan gertatzen badira.

8. Azkenik, eta oro har ere, ezartzen da onuradunak dirulaguntza emateak dakartzan betebeharrak ez betetzeak, eta aurkeztu beharreko datuak eta dokumentuak faltsutzeak eta ezkutatzeko dirulaguntza bertan behera utzi eta bidegabe jasotako zenbatekoak itzuli beharra ekarriko dutela, horri gehituta legez dagozkion berandutza korrituak eta egindakoak eragin dezakeen erantzukizuna ukatu gabe.

Esandakotik ondorioztatzen dugu enplegua eta inbertsioa sustatzeko laguntzen gaineko udal ordenantzak onetsi dituzten toki entitateek eskatzen dietela laguntza horien onuradunak diren enpresei mantentzen dituzten diruz lagundutako aktibo materialak gutxienez bost urtez dirulaguntza eman zenetik hasita, edo aktibo horien erabilera bizitza osoan, txikiagoa balitz, eta mantentzen dituzten bi edo bost urtez, plantillako batez besteko maila gehi dirulaguntza jaso duen sortutako enplegua.

Baldintza horiek Foru Komunitateko administrazioak inbertsio eta enplegurako laguntzetan, lehen aztertu ditugun horietan, ezarritakoen antzekoak dira; baldintza horiek Europako Erkidegoak eskualde-xedeko estatuko laguntzei buruz eman dituen jarraibideek ezarritakoak dira, laguntza mota hori haien mende baitago.

Onuradunei ezarritako betebeharrak horiek betetzea bermatzeko toki entitate batzuek bankuko bala ezartzea eskatzen dute, berma dezan eman-

dako dirulaguntzaren zenbatekoa itzuliko dela baldintzak ez badira betetzen, baina gehienek ez dute horrelako bermerik eskatzen. Edozein kasutan ere, onuradunaren aldetik ez-betetzeak gertatzen badira, dirulaguntza itzuli beharra ekar dezaketenak, beharrezkoa da dagokion prozedura tramitatzea, kontrajartze eta frogaren printzipioak betez, entzutea emanez onuradunari beti; prozedurak dirulaguntza bertan behera utzi eta bidegabe jasotako zenbatekoak itzuli beharra eragingo du, horri gehituta lege dagozkion berandutza korrituak, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen aurreikusitako arau-hauste eta zehapenen araubidearen aplikazioa galarazi gabe.

Bestetik, laguntza horiek, estatuko laguntzak direnez Erkidegoko araudiaren arabera, EEIren 87tik 89.era bitarteko artikuluek ezartzen dituzten mugen mende daude eta Batzordeari jakinarazi beharrekoak lirateke, salbuesitako kategorietako batean ez badaude.

Aurrekoarekin lotuta, laguntzak aztertuta ateratzen den ondorioa da ezen, oro har, horiei aplikatzeko litzaikeela 2001eko urtarrilaren 12ko 69/2001 Erregelamendua (EE), "minimis" laguntzei buruzkoa. Erkidegoko erregelamendu horren arabera, salbuespena aplikatzeko beharrezkoa da edozein enpresari emandako "minimis" laguntza, osotara, 100.000 eurotik beherakoa izatea hiru urteko epean. "Minimis" laguntza baten onuradunak beste laguntza batzuk, estatukoak nahiz eskualdekoak, eskuratu ahal ditu proiektu bererako, baina "minimis" laguntzen metatzearen gainean kontrola egin ahal izateko, erregelamenduak eskatzen du enpresari jakinaraz dakion beti laguntza "minimis" izaerakoa dela. Beraz, araubide horri lotuz gero, laguntza hauek arautzen dituzten ordenantzetan klausula bat ezarri beharko litzateke "minimis" izaerakoak direla adierazteko 69/2001 Erregelamenduarekin bat.

Aplikatzekoa izanen litzaioke, halaber, 2001eko urtarrilaren 12ko 70/2001 Erregelamendua (EE), enpresa txiki eta ertainendako laguntzei buruzkoa eta otsailaren 25eko 364/2004 Erregelamenduak (EE) aldatu zuena. Erregelamendu horrek ezartzen du, txosten honen interesekoa den aldetik, enpresa txiki eta ertainendako inbertsioko laguntzen araubideak ez direla jakinarazi beharko, baldin eta aktibo material eta ez-materialetan egindako inbertsioarekiko, laguntzaren intentsitate

gordina ez bada % 15etik gorakoa enpresa txikien kasuan eta % 7,5ekoa enpresa ertainen kasuan, edozein tokitan daudela ere; eskualdeko laguntzaren onuradunak diren eremuetan dauden enpresa txiki eta ertainek, berriz, eta hori da Nafarroaren kasua, eskualdeko helburua duen inbertsiorako laguntzaren gehienekoa jaso dezakete, gehi % 10. Beraz, Nafarroan, Iruñeko Udala salbu, laguntza horiek ez litzaizkioke jakinarazi beharko Batzordeari, enpresa txiki eta ertainendako balira eta intentsitate gordina % 30etik beherakoa balute. Aztertutako ordenantzetan ez da aipatzen behin ere laguntza horiek enpresa txiki eta ertainendako baidiz ez direla.

Enpresa txiki eta ertainei nekazaritzako produktuak ekoitzi, eraldatu eta merkaturatzeko ematen zaizkien laguntzen kasuan, 2003ko abenduaren 23ko 1/2004 Erregelamendua (EE) jakinarazi beharrik gabeko zenbait laguntza mota ezartzen ditu; mota horietako bakoitzari laguntzaren intentsitatearen gehieneko muga desberdina aplikatzen zaio eta, adibidez, nekazaritzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko inbertsioei, Nafarroaren kasuan, muga % 40koa da. Erkidegoko erregelamendu hori aplikatzekoa izanen liteke hemen aztertutako laguntzen kasuan ere.

Azkenik, laguntza hauen ezaugarriak direla eta, aztertutako ordenantzetakoren batean haien zenbatekoa finkatzeko erreferentziatzat hartzen da Eraikin, instalazio eta obren gaineko zergaren kuotaren portzentaje bat. Ez dirudi oso gomendagarria denik hala egitea, Toki administrazioari buruzko Foru Legearen 223. artikulua ezartzen duen debekuak hartzen duela uler daitekeelako, xedatzen baitu ez dela laguntza ekonomiko zuzenik nahiz zeharkakorik ematerik izanen kasuan kasuko toki ogasunaren tributuak ordaindu behar dituzten partikular edo entitateei, legean aurreikusi gabeko zerga salbuespenak diren heinean... Konsekuentzagoa dirudi, laguntza ekonomikoa eta hura justifika dezaketen helburuak bat etorri behar direnez, eta Erkidegoko araudia hobeki errespetatzen duela, laguntzaren zenbatekoa egindako inbertsio onargarriaren portzentaje bat izanen dela finkatzeak eta, gehigarri gisa, kontuan hartzeak enpresa onuradunak sortutako lanpostuak.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. ERANSKINA. XEDE HORIZONTALERAKO EDO ESKUALDEKOA DUTEN ESTATUKO LAGUNTZAK BAIMENTZEKO KATEGORIAK SALBUETSI ETA EBALUATZEKO ERREGELAMENDUAK, JARRAIBIDEAK ETA ZEDARRIPEAK

1. ESKUALDEKO HELBURUA DUTEN ESTATUKO LAGUNTZEN GAINEKO JARRAIBIDEAK (1998-03-10eko C-74 DOCE), BATZORDEAREN KOMUNIKAZIO BATEK ALDATUAK (2000-09-09ko C-258 DOCE).

Sarrera

Eskualdeko helburua duten estatuko laguntzen gaineke jarraibideak finkatzeko, Batzordeak eskualdeko helburua duten estatuko laguntzei buruzko jarraibideak onetsi zituen. Jarraibide horiek testu bakar eta sinplifikatu batean aurkezten dute gai horretan hartutako xedapenen multzoa, eta 2000tik 2006ra bitarte dute indarra.

Europako Erkidegoko Itunaren 87. artikulua arautzen du estatuek emandako laguntzak bateraezinez direla merkatu bateratuarekin lehia faltsutzen dutelako zenbait enpresa edo ekoizpenen alde egitean. Halere arau honek baditu salbuespenak, zehazki honakoei dagokienez:

- Bizi maila nabarmen apala duten eskualdeetako edo enplegu urritasun larria pairatzen duten eskualdeetako garapen ekonomikoaren aldeko laguntzak (Itunaren 87. artikuluko 3. idatz-zatiko a) letraren salbuespena); hemen sarturik dauden eskualdeetan biztanleko barne produktu gordina (BPG) Erkidegoko batez bestekoaren % 75etik beherakoa da.
- Zenbait jarduera edo eskualde ekonomiko jakin batzuk garatzen sustatzeko laguntzak, baldin eta trukaketako baldintzak interes orokorraren kontra jartzen ez badira (Itunaren 87. artikuluko 3. idatz-zatiko c) letraren salbuespena). Eskualde horiek zenbait baldintza bete behar dituzte eta kasuko estatu kideek Batzordeari jakinarazitako eskualdeen zerrendan sartuta egon behar dute.

Bi salbuespen horiek zuzenean ukitzen dituzte eskualdeko helburua duten laguntzak. Aipatutakoen eta laguntza publikoen gainerako moten arteko desberdintasun nagusia da –batez ere ikerketa eta garapenerako laguntzak, enpresa txiki eta ertainendako laguntzak, ingurumena babesteko eta prestakuntzarako laguntzak– zenbait eskualde zehatzetarako direla eta horien helburu berariazkoa eskualde horien garapena dela.

Batzordearen iritziz, laguntza horiek eragiten dituzten lehia faltsutzeak justifikaturik daude honako printzipio hauek errespetatzen badira: a) tresna

hau salbuespenezkoa izatea eta denboran mugatua, b) eskualde behartsuenetan kontzentratzea eta c) lehia faltsutzeen eta eskualdeko helburua duten laguntzek sortzen dituzten garapen ekonomikoaren abantailen arteko ezinbesteko oreka errespetatzea.

Eskualdeko pizgarrien gaur egungo mapan Nafarroa osoa ageri da, Iruñeko Udalaren zati bat izan ezik, laguntza publikoak emateko eremu hau-tagarri gisa EEIren 87. artikuluko c) letran aurreikusitakoaren esparruan, eta horrek aukera ematen du laguntzen gehieneko intentsitatea % 20ra gehitzeko (10 puntu gehiago enpresa txiki eta ertainen kasuan). Eskualdeko helbururako araubide bat baino gehiago tartean direlarik edo laguntzak iturri anitzetik datozenean (tokikoak, eskualdekoak, nazionalak, Europakoak) intentsitatearen gehieneko mugak laguntzaren zenbateko osoari aplikatzen zaizkio.

Xedea:

Eskualdeko helburua duten estatuko laguntzei buruzko jarraibideak finkatzea Europako eskualde behartsuen garapen ekonomikoa bultzatzeko inbertsioaren bidez eta enplegua sortuz.

Aplikazio eremua:

Jarraibide hauek jarduera sektore guztietan emandako eskualdeko laguntzei aplikatzen zaizkie, salbu eta nekazaritza, arrantza eta ikatz produktuak ekoizti, eraldatu eta merkaturatzekoei, xedapen berariazkoen mende daudelako.

Jarraibide horiek arau bereziak dituzte erantsiak sektore hauetarako: garraioa, siderurgia, untzigintza, zuntz sintetikoak eta automobilgintza. Bestetik, krisian dauden enpresen aldeko laguntza berariazkoak xedapen berariazkoek arautzen dituzte eta ez dira eskualdeko helburua duten laguntzat hartzen.

Laguntzen xedea, motak eta maila

Jarraibide horiek ezartzen dutenez, eskualdeko laguntzaren xedea izan daiteke ekoizpen inbertsio bat egitea (hasierako inbertsioa) edo enplegua sortzea inbertsioarekin loturik. Diruz lagundutako ekoizpen inbertsioak bideragarriak eta akasgabeak direla ziurtatzeko, onuradunak finantzatzeko jartzen duena % 25 izan behar da gutxienez. % 25eko gutxienezko ekarpen horrek ez du inolako laguntzarik jasoko. Hori ez litzateke beteko, adibidez, mailegu hobariduna balitz edo berme publikoak dituenak.

Laguntza mota aldakorra izan daiteke: dirulaguntza, tipo murriztuko mailegua edo korrituen hobariak, partaidetzen berme edo eroste publikoa

abantailazko baldintzetan, zerga salbuespena, gizarte kontribuzioen murrizketa, edo ondasunak edo zerbitzuak abantailazko prezioetan erostea.

Eskualdeko helburua duten hiru laguntza mota daude: a) inbertsiorako laguntza, b) enplegua sortzeko laguntza eta, salbuespen gisa, c) jardunbiderako laguntza.

A) Inbertsiorako laguntza:

Bost urtekoa gehienez, hasierako inbertsioa kapital finkoko inbertsio bat da, honekin lotutakoa:

- establezimendu berri bat sortzea,
- dagoen establezimendu bat handitzea,
- edo establezimendu baten produktuan edo ekoizpen prozeduran aldaketa sakona dakarren jardura bati ekitea.

Hasierako inbertsiorako laguntzak inbertsioaren balioaren portzentajearen arabera kalkulatzen dira. Balio hori gastu multzo uniforme batean oinarrituta ezartzen da, horien artean inbertsioaren honako elementu hauek: lurrak, eraikina, ekipamendua eta, batzuetan, inbertsio ez-materialen kategoria zenbait.

Hasierako inbertsiorako laguntzak kasuan kasuko inbertsioari eustearen mende egonen dira, bost urtez gutxienez, ordainketarako moduaren edo dirulaguntza bera lortzeko baldintzen bidez. Horrez gain, dirulaguntza jaso dezaketen aktibo ez-materialak eskualdeko laguntzaren onuraduna den establezimenduan baizik ez dira ustiari ahal, merkatuko baldintzetan erosi behar dira eta enpresaren aktiboan iraun behar dute gutxienez bost urtez.

B) Enplegua sortzeko laguntza.

Eskualdeko laguntza enplegua sortzeko erabil daiteke (lanpostuen kopuruaren urteko gehikuntza garbia) hasierako inbertsio bat egitearekin lotuta. Inbertsioa osorik egin eta hurrengo hiru urteetan sortutako lanpostuak izanen dira eta inbertsioarekin lotutako jarduerari dagozkio soilik. Kontuan hartzen dira halaber hasierako inbertsioak sortutako gaitasunaren erabilera portzentajea handitzea dela eta sortutako lanpostuak.

Inbertsiorako laguntzen antzera, enplegua sortzeko laguntzak sortutako enpleguari gutxienez bost urtez eustearen mende daude, eta eskualdeko arazoen izaera eta intentsitatearen arabera modulatu dira. Laguntza horiek ez dira izanen bi urtez kontratatutako pertsonaren soldaten kostuaren portzentaje zehatz batetik gorakoak (soldata gordina zergak deskontatu aurretik gehi nahitaezko gizarte kotizazioak). Portzentaje hori inbertsio-

rako laguntzetarako kasuan kasuko eremuan onarturik dagoen intentsitatearen adinakoa da.

Enplegua sortzeko laguntza eta inbertsiorako laguntza metatu egin daitezke, betiere errespetatuz gero eskualderako ezarritako gehieneko intentsitatea.

Batzordeak berraztertu behar ditu jarraibide hauek bost urteko epean aplikatzen direnetik hasita, hau da, 2005ean. Horrez gain, aldatzea erabaki dezake edozein unetan beharrezkoa bada lehia politikaren, erkidegoaren beste politika batzuekin edo nazioarteko beste konpromiso batzuekin zerkusia duten arrazoiengatik.

2.- ERKIDEGOAREN JARRAIBIDEAK, SEKTORE ANITZEKOAK, INBERTSIO PROIEKTU HANDIETARAKO ESKUALDEKO LAGUNTZEI BURUZKOAK (2002-03-19ko C-70 EEAO). ERKIDEGOAREN KOMUNIKAZIO BATEK, 2003-01-01eko C-263 EEAON ARGITARATUTAKOAK, ALDATUAK.

Sarrera

Jarraibide horien asmoa da tresna sinple eta garden bat sortzea eskualdeko helburua duten laguntzak inbertsio proiektu handietara bideratzeko aukera eman dezan, eta 2009ko abenduaren 31ra arte izanen dute indarra. Horiek aplikatuta, ez da beharrezkoa izanen aldeztu aurretik jakinaraztea inbertsio proiektu handietarako laguntzak baldin eta diruz lagundu ahal diren kostuak zenbait mugaren azpitik badaude, eta Batzordeak onartutako laguntza araubide baten babesean emanez gero. Nolanahi ere, salbuespen erregelamenduren bat aplikatuta salbuetsirik ez dauden banakako laguntza berriak (ad hoc) jakinarazi beharko dira.

Inbertsio proiektu handietarako eskualdeko laguntzak, eskualdeko laguntzen inguruan onetsitako jarraibideen mende egoteaz gain jarraibide berariazkoek arautzen dituzte, jarraibideen kontuan hartuzkoetan bertan azaltzen diren arrazoi hauengatik:

- Osorik emanik, lehia arrazoirik gabe faltsutzea ekar dezakete, bereziki egiturazko zailtasunak dituzten sektoreetan edo ekoizpena nabarmen handitzea, eskaera ez bezala, gerta daitekeenez.

- Inbertsioak egiten diren eremuek pairatzen dituzten eskualde arazoen eragina arinki jasaten duten enpresa handiei eman ahal zaizkie.

- Batzuetan egiazko beharrak gainditzen dituzte. Gehienetan inbertsio handiak egiten dituzten enpresek negoziazio ahalmen handia dute laguntzak ematen dituzten agintarien aitzinean, eta hori-

ek, zenbaitetan, eskuzabal jokatzeko dute dirulaguntzak ematean inbertsio egileak bere lurraldera ekartzeko.

Xedea:

Tresna simple eta garden bat sortzea eskualdeko helburua duten laguntzak inbertsio proiektu handietara bideratzeko.

Aplikazio eremua:

Jarraibide horiek hasierako inbertsioak eta inbertsio horiekin lotuta enplegua sortzea sustatzen dituzten eskualdeko laguntzei aplikatzen zaizkie EEIren 87. artikularen 3. idatz-zatiaren a) eta c) letrei jarraikiz, laguntzaren gehienekoak egindako inbertsioaren zenbatekoaren arabera ezarritik.

Ez dute eraginik hauetan, ordea:

- Europaren intereseko proiektu garrantzitsuak egitea sustatzen duten laguntzak, estatu kide bateko ekonomian gertatutako asaldura larri bat oneratzeko erabili direnak edo kultura eta ondarearen kontserbazioa sustatzen dutenak.

- Krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko estatuko laguntzak.

- Jarraibide horizontalen aplikazioa, bereziki ikerketa eta garapenaren eta ingurumenaren arloan.

- Nekazaritza, arrantza, garraio eta ikatz industriarako estatuko laguntzei buruzko xedapen sektorialen aplikazioa.

Laguntzen xedea, motak eta maila

Inbertsio proiektu handietarako laguntza horiek kasuan kasuko eskualdeko laguntzaren gehienekoaren mende daude, beherantz doitua diruz lagundu daitekeen zenbatekoaren arabera. Adibidez, Nafarroaren kasuan, diruz lagundu daitekeen 50 milioi euroko gastu bati aplikatzekoa zaion gehieneko muga % 20koa da; muga hori jaisten da gastuak gora egin ahala, esate baterako, 500 milioi euroko gastu baterako gehieneko muga % 8,4ra jaisten da.

Inbertsioak 50 milioi eurotik gorakoak direnean, estatu kideek jakinarazi behar diote Batzordeari 20 egun balioduneko epean laguntza eman zenetik hasita, proiektu horiei buruzko informazio laburtua, formulario normalizatu baten bidez. Horrez gain, estatu kideek jarraibide hauek aplikaturik emandako laguntzen erregistro zehaztuak eraman behar dituzte eta erregistro horiek gorde hamar urtez laguntzak eman zirenetik hasita.

Bai hasierako inbertsiorako laguntzak bai enplegua sortzekoak kasuan kasuko inbertsioari

eta enpleguari eustearen mende egonen dira, bost urtez gutxienez, ordainketarako moduaren edo dirulaguntza bera lortzeko baldintzen bidez.

Jarraibide horiek ezartzen dituzte halaber zenbait sektoretarako arau berariazkoak:

a) Ibilgailu motordunen sektorea

Sektore horri dagokionez, 2006ko abenduaren 31ra arte, enpresa txiki eta ertainak kenduta, laguntzaren gehieneko intentsitatea eskualdeko laguntzaren gehieneko mugaren % 30ekoaren adinakoa da 5 milioi eurotik gorako zenbatekoa duen laguntza jasotzen dutenentzat dirulaguntzaren baliokide gordinen adierazia.

b) Sektore siderurgikoa

Jarraibide horiek ezartzen dute (27. kontuan hartuzkoa) siderurgia berregituratzen ari dela bete-betean, erkidegoan eta mundu osoan gaitasun gehiegi daukala eta esperientziak erakutsi duela sektore horretan inbertsiorako laguntzak debekatzea justifikaturik dagoela. "Beraz, Batzordeak pentsatzen du siderurgiarako eskualdeko laguntzak ez direla bateragarriak merkatu bateratuarekin".

Jarraibide hauek sektore siderurgikoari dagokionez debekatzea 2002ko uztailaren 24tik aurrera da aplikatzekoa.

c) Zuntz sintetikoaren sektorea

Zuntz sintetikoaren sektoreari dagokionez, jarraibide hauen xedapenek ezartzen dute 2006ko abenduaren 31ra arte, enpresa txiki eta ertainen kasuan kenduta, sektore horrekin lotutako ezein inbertsio proiektuk ez duela jasotzerik izan inbertsiorako laguntzarik.

3.- 2001eko URTARRILAREN 12ko 68/2001 ERREGELAMENDUA (EE), PRESTAKUNTZARAKO LAGUNTZEI BURUZKOA; OTSAILAREN 25eko 363/2004 ERREGELAMENDUAK ALDATU ZUEN. ERREGELAMENDU HORI SEKTORE GUZTIETAN EMANDAKO LAGUNTZEI APLIKATZEN ZAIE, BAINA SALBUESPENA EZ DA APLIKATZEKOA IZANEN LAGUNTZA PROIEKTU BAKAR BATERAKO EMANDAKO LAGUNTZAREN ZENBATEKOA MILIOI BAT EUROTİK GORAKOA BADA.

Xedea:

Lehiaren gaineko arauekin bateragarriak diren prestakuntzarako estatuko laguntza batzuk jakinarazteko betebeharretik salbuestea. Salbuespen hori justifikaturik dago prestakuntzak ondorio positiboak eragiten dituelako, alegia, lanbide kualifika-

zio hobeak eta Europako industriaren lehiakortasun handiagoa.

Aplikazio eremua

Erregelamendu hau aplikatzen zaie estatu kide batek enpresa bati prestakuntzaren arloan emandako laguntzei. Prestakuntza sektore guztietan aplikatu ahal da. "Berariazkoa" da soldatapekoaren egungo edo etorkizuneko lanpostuari aplikatzekoa denean nagusiki, eta "orokorra" beste enpresa batzuei edo beste lan esparru batzuei modu zaballean aplikatu ahal zaizkien kualifikazioak ematen dituenen. Lehenbiziko kasuan, Batzordeak uste du lehia faltsutzeko arriskuak handiagoak direla bigarrenen baino.

Salbuespenerako baldintzak:

Prestakuntzarako laguntzak ez dira jakinarazi behar laguntzaren portzentajea proiektuaren zenbateko osoaren portzentaje zehatz batetik beherakoa denean. Hortaz, proiektuak badira:

- Prestakuntza berariazkoa emateko, laguntzen portzentajea % 25etik beherakoa bada enpresa handien kasuan eta % 35etik beherakoa enpresa txiki eta ertainen kasuan.

- Prestakuntza orokorra emateko, laguntzen portzentajea % 50etik beherakoa bada enpresa handien kasuan eta % 70etik beherakoa enpresa txiki eta ertainen kasuan.

Portzentaje horiek handitu daitezke zenbait kasutan, adibidez:

- % 5, eskualdeko laguntzak jaso ahal dituzten eskualdeetan dauden enpresen kasuan.

- % 10, prestakuntza egoera behartsuan dauden langileei ematen bazaie.

Prestakuntza proiektu baten kostu onargarrietan honakoak daude sarturik:

- prestatzaileen lansariak,
- prestatzaileen joan-etorrietako gastuak,
- prestakuntzan parte hartzen dutenen gastuak,
- hornidura eta material gastuak,
- tresnen eta ekipamenduen amortizazioa,
- aholkularitza zerbitzuen kostuak,
- prestakuntza proiektuan parte hartzen dutenen lansariak.

Prestakuntzarako laguntzetako batek jakinarazpenetik salbuesteko irizpideak betetzen dituenen erregelamendu hau aipatu behar da.

Salbuespena ez zaie aplikatzen milioi bat euroko aurrekontua gainditzen duten banakako prestakuntza proiektuei. Salbuetsiriko laguntzak ezin dira estatuko beste laguntza batzuekin metatu. Horrez gain, emandako portzentajeetan sarturik daude laguntza nazional guztiak edo, kasuen arabera, Europako Erkidegokoak.

Estatu kideen betebeharrak.

Kontrol egokia bete eta behar besteko garrantasuna bermatze aldera, Batzordeak haxe eskatzen die estatu kideei:

- hogei eguneko epean igor diezaioten laguntza araubide horri buruzko informazioaren laburpen bat.

- erregelamendu honen babesean salbuetsirik dauden laguntza araubideen inguruko espediente zehaztuak eraman ditzaten.

- erregelamendu honen aplikazioari buruz urtero txostena egin dezaten.

4.- 2001eko URTARRILAREN 12ko 69/2001 ERREGELAMENDUA (EE), "MINIMIS" LAGUNTZEI BURUZKOA.

Xedea:

Lehiaren gaineko araudiarekin bateragarriak diren minimis laguntzak, estatu kide batek enpresa bati emandakoak, jakinarazteko betebeharretik salbuestea. Salbuespena aplikatzeko, edozein enpresari emandako gutxieneko laguntza, osotara, 100.000 eurotik beherakoa izanen da hiru urteko epean.

Aplikazio eremua

- Erregelamendu hau aplikatzekoa da sektore guztietako enpresei emandako laguntzei, salbu eta garraioaren sektorea eta EElren I. eranskinean ageri diren produktuak (nekazaritza, arrantza eta akuikulturakoak) ekoitzi, eraldatu edo merkaturatzearekin zerikusia duten jarduerak, esportazioarekin zerikusia duten jardueretarako laguntzak eta produktu nazionalen lehentasuna ematen dietenak inportatutakoen kaltetan.

- Minimis laguntza baten onuradunak estatuko beste laguntza batzuk ere eskuratu ahal ditu proiektu bererako, minimis zenbatekoa ez baita juridikoki estatuko laguntza bat.

- Minimis neurrien metatzearen gaineko kontrola egin ahal izateko, erregelamenduak eskatzen du enpresari jakinaraz dakion, beti, laguntzak minimis izaera duela. Estatu kideak erregistro zentral bat ezarri ahalko du estatu horretako agintari orok emandako minimis laguntzari buruzko informazio

osatua izanen duena, minimis laguntzarako erregistrorik egon ezean, enpresa onuradunak jasotako minimis laguntzei buruzko informazio guztia eman beharko du eta estatu kideak ez du beste laguntzarik eman ahal izanen egiaztatu artean ez duela gainditzen ezarritako gehieneko muga.

Estatu kideen betebeharrak.

Kontrol egokia bete eta behar besteko garrantasuna bermatze aldera, Batzordeak haxe eskatzen die estatu kideei:

- emandako minimis laguntzei buruzko informazio osoa erregistra dezaten.
- informazio hori 10 urtez gorde dezaten.
- bidezkoa denean informazio guztia eman diezaioten 20 egun balioduneko epean.

5.- 2001eko URTARRILAREN 12ko 70/2001 ERREGELAMENDUA (EE), ENPRESA TXIKI ETA ERTAINENDAKO LAGUNTZEI BURUZKOA; OTSAILAREN 25eko 364/2004 ERREGELAMENDUAK (EE) ALDATU ZUEN.

Erregelamendu horrek aipatzen du Batzordeak 1996ko apirilaren 3an emaniko gomendioan enpresa txiki eta ertainei buruz erabiltzen den definizioa, honako hauek alegia:

- enpresa ertaintzat hartzen denak 250 langile baino gutxiago ditu. Haren urteroko negozio tamaina 40 milioi eurotik beheitikoa da edo haren urteroko balantze orokorra 27 milioi eurotik beheitikoa;
- enpresa txikitat hartzen denak 50 langile baino gutxiago ditu. Haren urteroko negozio tamaina 7 milioi eurotik beheitikoa da edo haren urteroko balantze orokorra 5 milioi eurotik beheitikoa;

Gomendio hori 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioak ordeztu du, eta 2005eko urtarrilaren 1ean hartu du indarra. Hona haren zehaztapenak:

- enpresa ertaintzat hartzen denak 250 langile baino gutxiago ditu. Haren urteroko negozio tamaina 50 milioi eurotik beheitikoa da edo haren urteroko balantze orokorra 43 milioi eurotik beheitikoa;
- enpresa txikitat hartzen denak 50 langile baino gutxiago ditu. Haren urteroko negozio tamaina edo haren urteroko balantze orokorra 10 milioi eurotik beheitikoa da;
- mikroenpresa batek 10 langile baino gutxiago ditu. Haren urteroko negozio tamaina edo haren urteroko balantze orokorra 2 milioi eurotik beheitikoa da.

Xedea: Enpresa txiki eta ertainen jarduera ekonomikoak garatzen laguntzea, inbertsiorako eta enplegurako, aholkularitza zerbitzuetarako eta beste batzuetarako eta ikerketa eta garapenerako laguntzak aldeztu aurretik jakinarazi beharretik salbuetsiz.

Aplikazio eremua

Erregelamendu hau aplikatzekoa da estatu kide batek sektore guztietako enpresa txiki eta ertainei emandako laguntzei, salbu eta EElren I. eranskinean ageri diren produktuak (nekazaritza, arrantza eta akuikulturakoak) ekoitzi, eraldatu edo merkaturatzearekin zerikusia duten jarduerak, esportazioarekin zerikusia duten jardueretarako laguntzak eta produktu nazionalen lehentasuna ematen dietenak inportatutakoen kaltetan.

Salbuespenerako baldintzak:

Salbuespena aplikatzeko, aktibo material eta ez-materialei dagokienez, laguntzaren intentsitate gordina ez da % 15etik gorakoa izan behar enpresa txiki kasuan eta % 7,5etik gorakoa enpresa ertain kasuan, edozein delarik ere haien kikapena, baina eskualdeko laguntzen onuradun diren eremuetan, Nafarroan, kasu, dauden enpresa txiki eta ertainek jaso ahal izanen dute, gehienez, eskualdeko xedea duen inbertsio laguntzarako ezarri den gehienekoa, ehuneko 10 gehitua, betiere inbertsioa bost urtez gutxienez mantentzen bada eskualde onuradunetan eta onuradunak finantzaziorako egiten duen ekarpena % 25ekoa bada gutxienez. Ikerketa eta garapenerako laguntzek muga altuagoak dituzte, laguntzaren helburu den ikerketa fasea zein den.

Laguntzaren zenbatekoa kalkulatu daiteke bai diruz lagundu daitezkeen inbertsio kostuen portzentajea bai sortutako lanpostuen soldata kostuen portzentajea. Azken kasu horretan, sortutako lanpostuak inbertsio proiektu bati atxikiak egon beharko dira eta sortutako enpleguari bost urtez gutxienez eutsi beharko zaio.

Erregelamendu honek ez ditu salbuesten estatuko laguntzak baldin eta haien kostu onargarriak, guztira, 25 milioi euroko zenbatekoa gainditzen badute edo laguntzaren zenbateko gordina 15 milioi eurotik gorakoa denean. Bestetik, salbuestitako laguntzak ezin dira metatu estatuko beste laguntza batzuekin, agintari nazionalak, eskualdekoak, tokikoak nahiz erkidegokoak emanak, metaketa horrek gainditzen baditu erregelamendu honetan finkatutako gehieneko mugak.

Estatu kideen betebeharrak.

Kontrol egokia bete eta behar besteko garden-tasuna bermatze aldera, Batzordeak haxe eska-tzen die estatu kideei:

- hogeie eguneko epean igor diezaioten lagun-tza araubide horri buruzko informazioaren labur-pen bat.
- erregelamendu honen babesean salbuetsirik dauden laguntza araubideen inguruko erregistro zehatza eraman dezaten.
- erregelamendu honen aplikazioari buruz urte-ro txostena egin dezaten.

6.- 2002ko ABENDUAREN 12ko 2204/2002 ERREGELAMENDUA (EE), ENPLEGURAKO LAGUNTZEI BURUZKOA.

Xedea: Enplegua sortzeko estatuko laguntzak eta egoera behartsuan dauden pertsonak eta minusbaliatuak kontratatzearen aldeko laguntzak jakinarazteko betebeharrak salbuestea.

Aplikazio eremua

Erregelamendu honek enplegurako laguntzak bi motatan banatzen ditu: Enplegua sortzeko laguntzak eta egoera behartsuan dauden pertso-nak eta minusbaliatuak kontratatzearen aldeko laguntzak. Enplegurako beste edozein laguntza mota ez dago debekatuta baina aldez aurretik jak-i-narazi behar zaio Batzordeari.

Enpresa bati banaka emandako laguntzak eta langileen kopurua handitzea ez dakarten lagun-tzak, adibidez, aldi baterako lan kontratuak mugagabeko kontratu bihurtzeko laguntzak, aldez aurretik jakinarazteko betebeharrari loturik daude.

Erregelamendu hau sektore guztietan da apli-katzekoa, ikatzaren industria salbu (Kontseiluaren 1407/2002 Erregelamendua), untzigintza (Kon-tseiluaren 1540/98 Erregelamendua) eta garraio-ak, euren xedapen berariazkoen mende daude-nak.

Salbuespenerako baldintzak:

Enplegua sortzeko laguntzaren intentsitate gordina ezin izan da izan % 15etik gorakoa enpresa txikien kasuan eta %7,5etik gorakoa enpresa ertainen kasuan, edozein dela ere haien kokapena. Eskualdeko laguntzen onuradun diren eremuetan dauden enpresek jaso ahal izanzen dute, gehienez, eskualdeko xedea duen inbertsio laguntzarako estatu bakoitzerako ezarri den gehienekoa, eta enpresa txiki eta ertainek por-tzentaje altuagoak izan dezakete. Laguntza horie-

tarako baldintza izanen da enpleguari eustea hiru urtez gutxienez edo bi urtez enpresa txiki edo ertainen kasuan. Langile ezgaituen edo egoera behartsuan dauden kasuan laguntzak ehuneko 60raino edo 50erainokoak izan daitezke, hurrenez hurren.

Erregelamendu honek finkatutako gehieneko mugak aplikatzen dira kontuan hartu gabe baliabi-deak nazionalak ala erkidegokoak diren, baina egoera behartsuan dauden langileen eta ezgaitu-en aldeko laguntzak metatu daitezke estatuko beste laguntza batzuekin edo erkidegoko beste sostengu neurri batzuekin, betiere metatuak lansa-rien kargen % 100etik gorako laguntza gordinaren portzentajea egiten ez badu.

Estatu kideen betebeharrak.

Kontrol egokia bete eta behar besteko garden-tasuna bermatze aldera, Batzordeak haxe eska-tzen die estatu kideei:

- hogeie eguneko epean igor diezaioten lagun-tza araubide horri buruzko informazioaren labur-pen bat.
- erregelamendu honen babesean salbuetsirik dauden laguntza araubideen inguruko espediente zehaztuak eraman ditzaten.
- erregelamendu honen aplikazioari buruz urte-ro txostena egin dezaten.

7.- ERKIDEGOAREN JARRAIBIDEAK INGU-RUMENAREN ALDEKO ESTATUKO LAGUNTZEI BURUZ (2001-02-03ko C-37 DOCE).

Erregelamendu hau EEIren 174. artikuluan zehazten diren printzipioetan oinarritzen da, beste-ak beste eta bereziki "kutsatzen duenak ordaintzen du" dioenean.

Xedea: zehaztu noraino eta zein baldintzatan diren beharrezkoak estatuko laguntzak ingurume-naren babesa eta garapen iraunkorra bermatzeko, lehian eta hazkunde ekonomikoan neurrigabeko ondorioz izan gabe.

Aplikazio eremua

Jarraibide hauek aplikatzekoak dira Erkidegoa-ren Itunean araututako sektore guztietan inguru-mena babesteko ematen diren laguntza guztietan, estatuko laguntzen arloan Erkidegoaren arau berariazkoen mende daudenak barne (altzairua-ren eraldaketa, untzigintza, automobilaren sekto-rea, zuntz sintetikoak, garraioa eta arrantza), salbu eta nekazaritzaren sektoreko estatuko laguntzei buruzko jarraibideek hartzen duten esparrua.

Baimena emateko baldintzak.

Jarraibideek ingurumenaren aldeko hiru laguntza mota ezartzen dituzte: a) hondakinen kudeaketaren eta energia aurrezpenaren aldeko jardunbidekoak, b) enpresa txiki eta ertainendako laguntza-aholkularitza jardueretarako eta c) inbertsiorako.

Inbertsiorako laguntzen baldintzak eta gehieneko mugak laguntza motaren arabera aldatzen dira, eta hortaz: 1) Energia aurrezteko inbertsioek inbertsiorako laguntzak eskuratu ahal dituzte, diruz lagundu daitezkeen kostuen %40ko oinarri tipoa, 2) eskualde lagunduetan dauden enpresendako laguntzetan, Nafarroan kasu, ingurumenaren arloko inbertsio laguntzei aplikatzekoa zaien oinarri tipoa %30ekoa da eta % 40koa energia berriztagarrietarako eta elektrizitatea eta beroa batera ekoizteko inbertsioen kasuan, 3) kutsatutako industri instalazioak saneatzeko laguntzak diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100erainokoak izan daitezke, 4) enpresak lekuz aldatzeko laguntzak, hiri ingurune edo Natura 2000 izendatutako eremu batean dagoen enpresa batek kutsadura nabarmena sortzen duenean eta horren ondorioz beharturik dagoenean alde egin eta toki egokiago batean jartzera, diruz lagundu daitezkeen inbertsioaren % 30erainokoak izan daitezke.

Estatu kideen betebeharrak.

Inbertsiorako laguntzaren banakako edozein proiektu Batzordeari jakinarazi beharko zaio aldez aurretik, diruz lagundu daitezkeen kostuek 25 milioi eurotik gora egiten badute eta laguntzaren zenbateko gordina 5 milioi eurotik gorakoa bada.

8.- ERKIDEGOAREN ZEDARRIPENA IKERKETA ETA GARAPENEN ESTATUKO LAGUNTZEI BURUZ (1996-02-17ko C-45 EEAO). BATZORDEAREN 1998-05-13 ETA 2002-05-08ko KOMUNIKAZIOEK ALDATUA. 364/2004 ERREGLAMENDUAK TRATAMENDU BERARIAZKOA EMATEN DIE ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEI LAGUNTZA MOTA HONI DAGOKIONEZ.

Xedea: Ikerketa eta garapeneko estatuko laguntzei aplikatzekoak zaizkien dirulaguntzen gehieneko kopuruak zehazten ditu.

Modalitateak

- Ikerketa funtsezkoa: ezagupen zientifiko eta tekniko orokorrak, industriaren eta merkataritzaren arloetako helburuekin zerikusirik ez dutenak, osatzeko jardura da.

- Ikerketa industrial: Produktuak, metodoak edo zerbitzuak, berriak nahiz lehendik daudenak doitzeko xedeaz egindako ikerketa da.

- Lehiatu aurreko garapen jardura: Ikerketa industrialaren emaitzak produktu, prozesu edo zerbitzu berrietarako plano, eskema edo diseinu batean gauzatzea da (adibidez, prototipo bat sortzea, proiektu erakusleak, probako proiektuak etab.).

Aplikazio eremua

Ikerketa funtsezkoaren finantzazio publikoa salbu, ikerketa eta garapenerako estatuko laguntza guztiak, oro har, zedarripen honen aplikazio esparruan sartzen dira.

Baimendutako dirulaguntzak eta hobarirako baldintzak

Hurrengo taulan adierazirik daude baimendu daitezkeen finantzazio portzentajeak proiektuaren kostuen zenbateko osoaren gainean:

Laguntzak	Ikerketa industrialeko proiektuak	Lehiatu aurreko garapen proiektuak:
Bideragarritasun azterlanen finantzazioa	% 75	% 50
Proiektu baten finantzazioa	% 50	% 25
Baldintzazko gehienekoa	% 75	% 50
Erkidegoaren intereseko proiektuak	% 75	% 50
Gehienekoa, metaketa dagoenean (estatuko laguntzak eta EEn finantzazioa)	% 75	% 50

Ikerketa industrial eta lehiatu aurreko garapen jarduera batera diren jardueren kasuan, intentsitate onargarria ezin da izan lehen aipatutako intentsitatearen batez besteko ponderatutik gorakoa.

Laguntzaren intentsitatea gehitu egin daiteke zenbait egoeratan “baldintzazko gehienekora”, bereziki finantzazioa enpresa txiki eta ertainendako denean, ekonomia aldetik behartsuak diren eskualdeendako edo mugaz haraindiko neurria duten proiektuetarako denean.

Jakinarazpen prozedura

Zedarripen honen baldintzak edo minimis araua betetzen ez dituzten laguntza araubideak formulario eredu baten bidez jakinarazi beharko dira; jakinarazpenak egiaztatu behar du delako laguntza horrek enpresak bultzatzen dituela ikerketa jarduera osagarriak egitera eta dirulaguntzarik izan ezean ikerketa ez zela gauzatuko edo apalagoa izanen zela.

1998an Batzordeak aldatu egin zuen zedarripen hori nekazaritzako sektorerako ikerketa eta garapen laguntzen mesedetan. Sektore honetako finantzazioak, Merkataritzako Mundu Erakundeak ezarritako betebeharrak betez, aurreikusitako kostuen % 100erainokoak izan daitezke laguntza sektorearen interes orokorrerako denean edo ikerketaren emaitzak zabaltzen badira.

Zedarripen honen berrikuspena egin ondoren, 2001eko martxoan, Batzordeak erabaki zuen arau horiek aplikatzen jarraitzea 2005eko abenduaren 31ra arte.

9.- ERKIDEGOAREN JARRAIBIDEAK KRISIAN DAUDEN ENPRESAK SALBATU ETA BERRANTOLATZEKO ESTATUKO LAGUNTZEI BURUZKOAK (1999-10-09ko C-288 EEAO), BATZORDEAREN 2004ko URRIAREN 1eko KOMUNIKAZIOAK ALDATUAK.

Xedea: Zenbait baldintza betez gero krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko estatuko laguntzetarako baimena ematea.

Aplikazio eremua

Krisian dauden enpresa orori aplikatzen zaio, enpresa txiki eta ertainak barne, eta sektore guztiei, nekazaritza ere barne.

Krisian dauden enpresak dira bere baliabideez eta agintari publikoen kanpoko esku-hartzerik gabe epe motzean edo luzean desagertzea galarrak ez dezaketanak.

Zehazki, edozein dela ere haien tamaina, enpresa bat krisian dagoela ulertzen da honako egoera hauetan:

- Haren kapitalaren erdia baino gehiago desagertu denean eta kapitalaren laurdena baino gehiago azken hamabi hilabeteetan galdu denean.
- Zuzenbide nazionalen aurreikusitako kaudimengabezia prozedura bati ekiteko baldintzak betetzen direnean.

Enpresa sortu berriak eta talde batekoak direnak ezin dira laguntzen onuradun izan.

Salbamenduak eta berregituraketak mekanismo desberdinak dituzte, baina askotan operazio bakar baten bi fase dira. Salbamenduko laguntza batek aukera eman behar du krisian dagoen enpresa bat aldi batez bizirik mantentzeko, bitarte horretan berregituraketa edo likidazio plan bat prestatzeko. Berregituraketa bat ordea, plan errealista, koherente eta irismen handiko batean oinarritzen da, zeinaren helburua baita enpresaren epe luzeko bideragarritasuna.

Baimenak laguntzeko baldintza orokorrak

Salbamenduko laguntzak salbuespenezko neurritzat hartu behar dira sei hilabetetarako gehienez, eta behin baizik ez dira eman behar ("laguntza bakarraren" printzipioa). Maileguen gaineko bermeak izanen dira, edo maileguak, mugaeguna enpresari lehen epea ordaintzen zaionetik hasita sei hilabeteko gehieneko epean izanen dutenak.

Lehia faltsutzea ekar dezaketenez, berregituraketako laguntzak ezin dira behin baino gehiagotan eman. Laguntzaren zenbatekoa eta intentsitatea behar-beharrezkoak diren berregituraketa kostuetara mugatuko da. Laguntzaren onuradunek berregituratzeko plana finantzatzen lagundu beharko dute euren baliabideekin, gutxieneko zenbateko hauekin: % 25 enpresa txikien kasuan, % 40 ertainak direnean eta % 50 enpresa handiak badira.

10.- BATZORDEAREN KOMUNIKAZIOA, BOTERE PUBLIKOEK LURSAIL EN ETA ERAIKINEN SALMENTAN LAGUNTZEKO ELEMENTUEI BURUZKOA (1997-07-10eko C-209 DOCE).

Botere publikoek lursailak eta eraikinak saltzea zedarritzeko asmoa du eskumenaren arauak errespetatuz.

Aplikazio eremua: Botere publikoek egindako lur eta eraikinen salmenta guztiak.

Aplikatzekoak diren printzipioak:

1. Baldintzarik gabeko lizitazio bidez saltzea:

Behar adina iragarritako lizitazio ireki eta baldintzarik gabekoaren bidez lurak eta eraikinak saltzea, enkante baten gisa, postura egile onenari

edo bakarrari adjudikatuz, merkatuko balioan egitako salmenta da definizioz, eta ez du estatuko laguntzaren ezein osagairik. Lizitazioaren aurretik, adibidez kontabilitatearen ondorioetarako edo hasierako gutxieneko prezio gisa, lursailaren edo eraikinaren beste balioespen bat izateak ez du garrantzirik.

Jarraibide hauetan aipatzen diren irizpideak, alegia, baldintzarik gabekoa izatea eta publizitatea, errespetatuz gero, salmentak ez dakar berarekin estatuko laguntzaren osagairik.

2. Baldintzarik gabeko lizitazio bidez saltzea:

Botere publikoek 1. puntuan deskribatutako prozedura erabiltzen ez dutenean, salmentako negoziazioak egin aurretik aktibo independenteen tasatzaile batek edo gehiagok tasazio bat egin beharko dute, merkatuko balioa ezartzeko, merkatuko adierazleetan eta oro har onarturiko ebaluazio irizpideetan oinarriturik. Ateratako merkatuko prezioa izanen da erosketarako gutxieneko prezio onargarria estatuko laguntzat har ez dadin.

Sektore publikoarentzat lursail baten edo eraikin baten erosketak dakartzan hasierako kostuak merkatuko balioaren parametro bat dira, non ez den denbora luzea iragan lursaila edo eraikina erosi zenetik saldu arte. Beraz, merkatuko balioa ez litzateke izan beharko hasierako kostuetatik beherakoa erosi eta hurrengo hiru urteetan gutxienez, salbu eta tasatzaile independenteak egiaztatzen badu lurren edo eraikinen prezioak dagokion merkatuan orokorrean jaitsi direla.

Jakinarazpen prozedura

Estatu kideek ondoko transakzioak jakinarazi beharko dizkiote Batzordeari, minimis araua ukatu gabe, estatuko laguntzarik dagoen ala ez ezar dezan eta baieztokan, laguntza hori merkatu bateratuarekin bateragarria den erabakitzeko:

a) Lizitazio ireki eta baldintzarik gabekoan egin ez den salmenta oro, postura egile onenari edo bakarrari adjudikatua.

b) Prozedura hori bete gabe, tasatzaile independenteek ezarritako merkatuko baliotik behera dagoen prezioan egindako salmenta oro.

II. ERANSKINA. SUSTAPENARI BURUZKO ARAUDIA FORU KOMUNITATEAN

1. INBERTSIO ETA ENPLEGURAKO LAGUNTZAK.

Araudia: Azaroaren 20ko 361/2000 Foru Dekretua, irailaren 17ko 261/2001 Foru Dekretuak eta apirilaren 28ko 91/2003 Foru Dekretuak aldatua. 12/2001 Foru Agindua, otsailaren 1ekoa.

Xedea: Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan sustatzea ekoizpenerako inbertsioa indarberritzea, lanpostu berriak sortzea eta daude-nak mantentzea.

Laguntza motak:

- Inbertsiorako zuzeneko dirulaguntza, haren gaineko ehuneko jakin bat.
- Enplegua sortzeagatik dirulaguntza, inbertsioa egin izanaren ondorioz sortu baldin bada. Laguntzaren zenbatekoa 3.005,06 euro bitartekoa izanen da lanpostu finko, sortu edo sendotu bakoitzeko.
- Maileguetako edo finantza errentamenduko korrituetarako hobari gisako laguntzak. Hobari hori 2 puntukoa izanen da Iruñeko udalerrian kokaturiko enpresen kasuan eta 3 puntukoa Nafarroako gainerako tokietan, gehi % 0,5 enpresa berrien kasuan, eta ez da izan eragiketa egindako interes nominalaren tipotik gorakoa.

Eskualdeko pizgarrien gaur egungo mapan Nafarroa osoa ageri da, Iruñeko Udalaren zati bat izan ezik, laguntza publikoak emateko eremu hau-tagarri gisa EEIren 87. artikuluko c) letran aurreikusitakoaren esparruan, eta horrek aukera ematen du laguntzen gehieneko intentsitatea %20ra gehitzeko (10 puntu gehiago enpresa txiki eta ertainen kasuan). Eskualdeko helbururako araubide bat baino gehiago tartean direlarik edo laguntzak iturri anitzetik datozenean (tokikoak, eskualdekoak, nazionalak, Europakoak) intentsitatearen gehieneko mugak laguntzaren zenbateko osoari aplikatzen zaizkio.

Araubide horretatik kanpo daude inbertsio proiektu handietarako laguntzak, Europako Batzordeak emandako definizioaren arabera, inbertsio proiektu handietarako eskualde laguntzei buruzko Europako jarraibide sektore anitzekoetan araututakoari jarraikiz emanen baitira. Jarraibide horiek (2002ko martxoaren 19ko C-70 EEAO) inbertsio proiektu handiak eskualdeko jarraibideen mende jartzen dituzte, laguntzen gehieneko muga onargarriak behetik doitzen dituzte eta xedapen berariazkoak ezartzen dituzte ekoizpen sektore jakin batzuetarako.

Era berean, Europako Batzordearen arau berariazkoek erregulatutako sektore bateko enpresen kasuan (nekazaritza, arrantza, ikatz industria, garraioa, siderurgia, motoredun ibilgailuak, zuntz sintetikoak eta untzigintza), laguntza araubidea aplikatuko da soilik arau horiekin bateragarria den heinean.

Betebeharrak eta baldintzak:

1.- Dirulaguntzaren xede diren inbertsioak Nafarroan egitekoak izatea.

2.- Dirulaguntzak proiektuak egiten hasi baino lehenago eskatzea.

3.- Diruz lagundu beharreko produkzio-inbertsioak bideragarriak direla bermatzeko, onuradunak gutxienez inbertsioaren % 25 jartzea (enpresa txiki eta ertainek aurkeztutako proiektuetan salbu).

4.- Inbertsioak egin eta proiektua martxan jartzea inbertsioak hasi eta handik bi urtera beranduenek, eta betiere, dirulaguntzak eskatzen den egunetik 30 hilabetera martxan izatea.

5.- Enpresa onuradunak izan behar du inbertsioaren ondasunen jabe, eta zuzen-zuzenean egin behar du ondasun horien kudeaketa ekonomikoa.

Horrez gain, onuradunari eskatu beharko zaio Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezartzen diren debekuek ez eragitea.

Onuradunak bete beharrekoak

Laguntzen onuradunak honakoak bete beharko ditu:

- Ezarritako epean inbertsioak egitea eta, hala behar denean, lanpostuak sortzea.

- Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari eginiko inbertsioen eta sortutako lanpostuen frogagiriak igortzea, hark dioen moduan, eta inbertsioak benetan halaxe egin direla eta hartutako konpromisoak benetan bete direla egiaztatzeko behar diren ikuskapen eta egiaztapenak egiten uztea.

- Diruz lagundu beharreko ondasunak enpresaren jarduerari atxikirik eta Nafarroan kokatuta mantentzea, gutxienez 5 urtez edo, epea laburragoa balitz, erabilera aldian, eskuz aldatu, errentan jarri edo haien erabilera hirugarrenei laga gabe. Delako epea inbertsioak abian jartzen direnean hasiko da.

- Diruz lagundutako enplegu gehikuntza bost urtez bederen mantentzea, inbertsio proiektua gauzatzen denetik aitzina, eskualdeko laguntzaren

gehieneko mugak aplikatzen badira, beti ere. Bestela gutxieneko aldia bi urtekoa izanen da.

- Inbertsioak abian jartzen direnetik hasita, bost urteko epean, Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari kudeaketaren kontrola urtero igortzea. Kontrolean, gutxienez, ekitaldi burutuko egoeraren balantzea eta ustiapen kontuak sartuko dira, bai eta enpresako plantillaren egiaztagiri sinesgarria ere

- Emandako dirulaguntzen jarraipena eta kontrola behar bezala egiteko departamentuak beharrezkotzat jotzen dituen datuak, dokumentazioa eta frogagiriak.

- Helburu bererako beste dirulaguntza batzuk eskatu edo lortu badira, horren berri ematea dirulaguntzak ematen dituen organoari jakinaraztea.

- Ondoko inguruabarren bat gertatuz gero, horren berri departamentuari ematera, idatziz, gertatu bezain pronto: negozioa itxi eta industri jarduera uzten bada, lana sei hilabetez edo gehiago geldiarazten bada, lantegia edo enpresaren helbide soziala Nafarroatik kanpora eramaten bada, krisiaren espediente edo lanaren edo lanaldiaren erregulazioa egitea erabakitzen bada, ordainketak eteten badira edo enpresak porrot egiten badu, betiere inguruabar horiek laguntzak behin betikoz emateari buruzko ebazpena eman zen egunetik hasita bost urteren barruan gertatzen badira.

Emandako dirulaguntza itzultzea eragiten duten arrazoiak

Hemen aztertu dugun foru dekretuaren 12. artikulua, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 21. artikulua eta Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 37. artikulua hainbat arrazoi aipatzen dituzte itzulketa eragiteko; arrazoi horiek funtsean bat datoz eta onuradunaren ez-betetzeekin dute zerikusia. Hala da dirulaguntzak baldintzazko izaera duelako, hau da, dirulaguntza ematen da baldintza erabakigarri batekin, onuradunak portaera jakin bat izatea edo jarduera bat betetzea ematea bidezkoa egiten duen moduan; dirulaguntza hortaz, onuradunak ezarritako betebeharrak material eta formal guztiak betetzen dituela ziurtatzearen mende dago, eta administrazioak eskumena du dirulaguntza emateko ekitaldia bertan behera uzteko funts publikoak jaso zituenak hitz emandakoa bete ezean.

Itzulketarako arrazoiak heterogeneoak dira berez eta haien garrantzia aldatzen da, dirulaguntza zertarako eman den xede publiko horren ikuspuntutik. Kasu batzuetan, edukizko betebeharrak ez betetzea da, beste batzuetan betebeharrak formalak ez betetzea. Guztiak dakarten ondorioa bera

da, berriz, baina aplikazio zehatzean kontuan hartu behar dira ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak, ezarritakoak eta proportzionaltasunaren printzipioaren arabera izan behar direnak (Auzitegi Gorenaren 1997ko otsailaren 28ko epaia eta Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 37.2 artikulua).

Itzulketarako arrazoiak, hemen aplikatzekoak, ondoko hauek dira:

1. Dirulaguntza zertarako eman den, helburu hori ez betetzea (Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 21. artikulua). Itzulketarako arrazoi hori onuradunari ezarritako betebeharrak hauei dagokie: 1) inbertsioak egitea eta, hala dagokionean, lanpostuak sortzea; 2) diruz lagundu beharreko ondasunak enpresari atxikiak eta Nafarroan mantentzea; 3) diruz lagundutako enplegu gehikuntza 5 urtez gutxienez mantentzea. Guztiak adierazirik daude foru dekretuaren 10. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 31. artikuluan.

Ildo berean, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 37.1.b. artikulua itzulketarako arrazoiaren artean aipatzen du "dirulaguntza emateko arrazoiak den helburua, jarduera edo proiektua edo portaera osorik edo hein batean ez betetzea". Itzulketarako arrazoi horrek ekar dezake halaber Zigor Kodearen 308. artikuluan aurreikusita dagoen erantzukizuna eskatzea dirulaguntza zertarako eman zen helburu horietatik desbideratzen bada eta bidezkoa izan gabe jasotako zenbatekoa 60.121,21 eurotik gorakoa bada. Erantzukizun penala, bidegabeki jasotako zenbatekoak prozesuaren une egokian itzulita desagertzen dena.

2. Dirulaguntza lortzea horretarako baldintzak bete gabe, onuradunari egotzi ahal zaizkien zioak direla medio (Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 21. artikulua). Arrazoi hori bat dator foru dekretuaren 12. artikulua adierazten duenarekin: "...enpresa onuradunak berak emandako datuak eta informazioak faltsutzea edo haien esanahia aldatzea..." eta Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 37.1.a artikuluan adierazitakoarekin: "Dirulaguntza eskuratzea hori jasotzeko baldintzak faltsutuz edo jasotzea eragotzi edo murriztuko zutenak ezkutatu". Horrez gain, azken aginduan adierazitako inguruabarrak gertatuz gero, administrazioari datu faltsuak ematea (ekintza) edo baldintzak iruzurra egiteko asmoz ezkutatzeko (omisioa) islatu beharko dira, onuradunaren jarduketak doluzkoa dagoela pentsarazten dutenak eta Zigor Kodearen 308. artikuluan, dirulaguntzen arloko iruzurraren delitua tipifikatzean, dirulaguntzak iruzurra eginez eskuratzearen modalitatean, aurreikusten dituenekin bat datozenak, betiere bidegabeki jasotako zenbatekoa 60.121,21 eurotik gorakoa bada. Eran-

tzukizun penala desagertu egiten da jasotako diru kopuruak itzultzean.

3. Eskuratutako funtsen xedea justifikatzeko betebeharra ezarritako eran eta epeetan ez betetzea (Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 21. artikulua). Hemen aztertutako dirulaguntzak, ondotik ordaintzekoak direnak, ez justifikatzeak ekarriko du betebeharra ez onartzea eta ordainketa ez gauzatzea. Ordainketaren aurrerapena alde aurretik justifikatu gabe egiteko baimena dagoenean edo ordainketarako justifikazio mugatua behar denean gertatu daiteke itzulketa eragiten duen egoera.

4. Dirulaguntzen arteko konkurrentzia, horiek bateragarriak diren kasuetan izan ezik (Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 21.d. artikulua). Arrazoi hori helburu bererako beste dirulaguntza batzuk eskatu edo lortu badira, dirulaguntzak ematen dituen organoari jakinarazteko betebeharrari dagokio, eta foru dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitako laguntzen metaketaren gaineko arauen mende dago. Laguntzen metaketari buruzko arauak gainditzea ekarriko duena jakinarazteko betebeharrari ez betetzeak itzulketa ekarriko du.

5. Bete beharreko jardueraren kostua gainditzea, eta kostu horren gaineko soberakinaren zenbatekoan (Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 21. artikulua). Itzulketarako arrazoi hori aurrekoarekin batera agertuko litzateke, laguntzen metaketaren gaineko arauak enpresa txiki eta ertainendako ezartzen duen gehieneko muga inbertsioaren % 30ekoa delako.

6. Dirulaguntza emateko kontuan harturiko baldintzak aldatzea edo ez betetzea (Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 21.f. artikulua). Itzulketarako arrazoi horren aldagai bat izan daiteke administrazioak aldaketa hori onartzea, eta kasu horretan ez litzateke eskatuko berandutzako korritua. Arrazoi hori foru dekretuaren 8. artikulua laguntzak jaso ahal izateko eskatzen dituen eta Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 37.f. artikulua ere jasotzen dituen beharkizun eta baldintzei dagokie, baina arau horrek eskatzen du, gainera, dirulaguntza ematea dela-eta onartutako beharkizunek eta konpromisoek eragina izatea moduan edo hura aipatzea: dirulaguntza emateko oinarria diren helburuak nola erdietsi, jarduera, proiektua edo portuera nola bete. Esan daiteke administrazioa ez dela zeharo libre edozein baldintza ezartzeko eta ez lirateke ezarri ahalko dirulaguntzak bilatzen duen interes publikoko helburua betetzeko lagungarri ez diren baldintzak edo dirulaguntza emateko ahalmena esleitzen duen arauak aurreikusten dituenak.

7. Egiaztatzeko jarduketan mende jartzeko betebeharrari dagokionez, kontra egitea, aitzakiak, oztopoak jartzea edo uko egitea (Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 21.g artikulua eta Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 37.1.e artikulua). Arrazoi hori onuradunari ezartzen zaion betebeharrari dagokio, alegia, urtero igortzea, inbertsioak abian jartzen direnetik hasita, bost urteko epean, Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari kudeaketaren kontrola. Kudeaketa kontrol horretan, gutxienez, ekitaldi burutuko egoeraren balantzea eta ustiapen kontuak sartuko dira, bai eta enpresako plantillaren egiaztatgiri sinesgarria ere, eta departamentuaren esku uztea emandako dirulaguntzen jarraipena eta kontrolerako egokitzat jotzen dituen datu, dokumentazio eta egiaztapen guztiak.

Aurrekoaz gain, onuradunaren betebeharra da organo eskudunek jasotako dirulaguntzen inguruan egiaztapenak egin ditzaten uztea, besteak beste Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eta, hala dagokionean, Erkidegoko organo eskudunek finantzen kontrola egitea eta Nafarroako Comptos Ganberak fiskalizazio lana egitea. Betebeharrari ez betetzea da itzulketarako arrazoi gisa tipifikatzen dena, baina betebeharrari ez garrantzi desberdinetako betebeharrari multzo baterako eratu direnez, haietako bakoitza bere aldetik hartuz gero, Dirulaguntzei buruzko lege orokorren 37.1.e artikulua, aplikatzekoa baita kasu honetan, itzulketarako arrazoiak murrizten du ez betetze hori "jasotako funtsei emandako erabilera, helburua bete ote den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularatasuna edo helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabide gehiago ote diren egiaztatzeko ezintasunari zor izatera..." Dirulaguntzei buruzko Foru Legeak ezartzen du halaber itzulketarako arrazoi hori gertatzen dela uler daitekeela kontrolaz arduratzen diren langileei ukatzen zaienean libreki sartzea lokaletan, dokumentazioa eskuratzea edo bankuko kontuei buruzko informazioa (46. artikulua).

8. Europar Batasuneko Itunaren 87.etik 89.era bitarteko artikuluetan ezarritakoaz baliatuz, itzulketaren beharra dakarren erabaki bat hartzea (Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 37.1.h. artikulua).

9. Dirulaguntzaren gaineko araudian aurreikusitako gainerako kasuetan, eta besteak beste, aurreikusitako baldintzetan aldaketa gertatzean (Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 21.1.h artikulua eta Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 37.1.i artikulua). Itzulketarako arrazoi horretan sarturik egonen litzateke Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak otsailaren 1ean

emaniko 12/2001 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren Inbertsio eta enplegurako finantza laguntzetarako baldintza orokorren 3. atalean xedatutakoa, "Aurreikusi gabeko gorabeherak" izenaren azpian hauek sartzen dituen: "Ondoko inguruabarren bat gertatuz gero, horren berri departamentuari ematera, idatziz, gertatu bezain pronto: negozioa itxi eta industri jarduera uzten bada, lana sei hilabetez edo gehiago geldiarazten bada, lantegia edo enpresaren helbide soziala Nafarroatik kanpora eramaten bada, krisiaren espedientea edo lanaren edo lanaldiaren erregulazioa egitea erabakitzen bada, ordainketak eteten badira edo enpresak porrot egiten badu, betiere inguruabar horiek laguntzak behin betikoz emateari buruzko ebazpena eman zen egunetik hasita bost urteren barruan gertatzen badira".

Dirulaguntzarekin erositako ondasunei ematen zaien erabilera eta sortutako enplegua foru dekretuaren 10. artikuluan ezartzen den epean mantentzeko betebeharrak betetzen ez den kasuak zehazten dituzte inguruabar horiek eta eragin dezakete laguntzak hein batean edo osotara murriztea eta, egokia bada, Nafarroako Ogasunari itzultzea, hila-beteko epean, jasotako diru guztia. Hemen aurreikusten dira hainbat egoera dirulaguntza emateko aintzat hartutako inguruabarrak aldatzeak sortutakoak, onuradunaren borondateaz kanpoko kausen ondorio izan daitezkeenak eta, pentsatzekoa denez, aurreikusiak izan balira dirulaguntza ez zen emanen edo beste zenbateko bat izanen zuen. Beraz, ez-betetzea egon daiteke, erruduna ala errugabea, dirulaguntza emateko ebazpena laguntzak murrizteko aldatzea ekarriko duena eta, egokia bada, horiek osorik edo hein batean itzuli beharra.

Aurrekoaren ondorioa da aztertu dugun foru dekretuak itzulketarako hainbat kasu aipatzen dituela, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 21. artikuluan aurreikusitako kasu eta ondorioez eta Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 37. artikuluan ezarritako itzulketarako arrazoiak osatuak. Araudi horrek itzulketa eragiteko aipatzen dituen arrazoiak onuradunaren ez-betetzeetan dautza eta haien ondorioa da laguntza eman zuen organoak, espedientea ireki ondotik, ebazpena ematea interesatuari adieraziz dirulaguntzaren itzulketa nola eta zein epetan ordaindu behar duen. Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko dirusarrerak dira (Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 21.3 artikulua) eta beraz, itzulketa epearen barruan ez bada egiten premiamendu bidezko dirubilletaren prozedura aplikatuko da.

2. IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK

Araudia: 360/2000 Foru Dekretua, azaroaren 20koa.

Xedea: Enpresen lehiakortasun maila hobetzea produktuaren edo/eta prozesuaren teknologia sartuz. Ikerketa zentroen eta zentro teknologikoen maila teknologikoa hobetzea.

Laguntza motak:

- Fondo galdurako dirulaguntzak ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuen gastuetarako.
- Korriturik gabe itzuli beharreko aurrerakinak.
- Aurrerakinen alternatiba gisa, eskatzaileek jarduerak finantzatzeko, Nafarroako Gobernuaren abala izanik, jasotzen dituzten maileguetako korrituen adinako dirulaguntza.

Aurrerakinak, ikerketak arrakasta badu, hamar urteko gehieneko epean itzuli beharko dira. Ikerketak arrakastarik ez badu aurrerakina funts galdurako dirulaguntza bihurtuko da eta proiektuaren inguruan lortutako emaitzak Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak izanen dira hortik aurrera.

Laguntzen intentsitatea eta ordainketa

Laguntzen intentsitatea (6. artikulua) aldatzen da betetako I + G jarduera mota batetik bestera, ezarritako gehieneko muga barruan eta foru dekretuak berak ezartzen dituen ebaluazio irizpideetako egokitasunaren arabera. Kontuan hartu behar dira halaber "Erkidegoaren zedarrapena ikerketa eta garapenerako estatuko laguntzei buruz" izenekoan jasotako ebaluazio irizpideak eta otsailaren 25eko 364/2004 (EE) Erregelamenduan -70/2001 EE Erregelamendua (enpresa txiki eta ertainetako laguntzak) aldatu zuena—ageri diren xedapean, ikerketa eta garapen laguntzetara zabaltzeko.

Erkidegoaren dirulaguntzak eta estatuko laguntzak (administrazio zentraleak, Nafarroako Gobernuarenak eta toki entitateenak) metatuz gero, finantzazio publikoa, osotara, ez da % 75etik gorakoa izanen industria ikerketarako eta % 50etik gorakoa lehiatu aurreko garapen jardueren kasuan.

Salbuespenezko kasuetan % 100erainoko laguntzak eman ahal izanen dira, enpresek beraien edo haien izenean eginiko funtsezko ikerketako jardueretarako, betiere ikerketa jarduera horiek merkaturatzeko fasetik urruti gauzatzen badira eta emaitzen zabalkundea eta ustiatzea egiten bada bereizkeriarik gabe eta merkatuko baldintzetan.

Emandako laguntzak aurreikusitako gastuen programa burutzen den heinean ordainduko dira,

hau da, ex post, baina aurreikusirik dago emandako laguntza ordaindu ahal izanen dela osorik nahiz zati batean, jarduketa amaitu aurretik, hala egitea justifikatzen duten arrazoiak daudenean eta aurreratutako kopuruaren adinako bankuko abala aurkezten bada aldiz aurretik (10. artikulua). Ikusten denez, bankuko abala eskatzen da edozein dela ere diruz lagundutako zenbatekoa, eta halatan, berme gehiago eskatzen da Dirulaguntzei buruzko foru legean baino, dirulaguntzen aurrerakinak 60.121,21 eurotik gorakoak direnean baizik ez baitu eskatzen abala.

Betebeharrak eta baldintzak:

Foru dekretuak ez du espresuki eta zehazki ezartzen zein diren laguntza hauen onuradunek bete beharreko beharkizunak eta baldintzak, baina onuraduna izateko funtsezko betebeharra da laguntza emateko oinarria den egoeran egotea, hau da, 1. artikuluan (esparru objektiboa) adierazitako jardueretakoren bat betetzea eta 2. artikuluan (esparru subjektiboa) adierazitako kalitatearen bat izatea.

Horrez gain, onuradunari eskatu beharko zaio ez egotea Dirulaguntzei buruzko Foru Legeraren 13. artikuluan aipatzen diren debekuen eraginpean. Agindu horrek zortzi inguruabar aipatzen ditu onuradunaren izaera lortzeko debekuen artean. Debeku edo baldintza negatibo horiek berdinak dira dirulaguntza araubide guztietan eta dirulaguntza ematea arautzen duten oinarrietan ezarritik daudenei gehitzen zaizkie.

Onuradunak bete beharrekoak

Foru dekretuak onuradunari betebeharrak hauek ezartzen dizkio (8.4 artikulua):

- Espresuki onartu beharko ditu emandako laguntzak, hilabeteko epean eman zaizkiola jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta agiri bat izenpetu beharko du horretarako; bertan jasoko dira bi aldeek konpromisoak eta betebeharrak.
- Emateko ebazpenean eta hark izenpetutako agirian ezarritako zehaztapen guztiak betetzea.
- Laguntza jaso duen proiektua edo jarduketa behar bezala egiten dela eta emandako laguntzen erabilera bermatzeko egiaztapenak egiten laguntzea, eta horretarako lanei buruz eskatzen zaizkion datu, agiri eta txosten guztiak aurkeztuko ditu.
- Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari jakinarazi beharko dio laguntza-

ren xedea den proiektua edo jarduketa gauzatzeari larriki eragin diezaiokeen edozein gorabehera.

- Departamentuari jakinaraztea halaber proiektu edo jarduketa bererako lortutako beste edozein laguntza publiko.

Dirulaguntzei buruzko Foru Legeak 2004ko otsailaren 18an indarra hartu zuenez geroztik, dirulaguntza mota guztietan eskatu behar da, oro har, arau horren 14. artikulua aipatzen dituen beharkizunak bete daitezten. Beharkizun horiek, ex lege eskatzekoak direnez, ulertu behar da laguntzak emateko ebazpenean ezarritako zehaztapenen artean daudela.

Emandako dirulaguntza itzultzea eragiten duten arrazoiak

Itzultzea eragiten duten arrazoiak dagokienez, foru dekretuaren 11. artikuluan haxe dago ezarritik: "proiektuaren segimendu-lanak ikusita, ondorioztatzen baldin bada onuradunak hartutako beharkizunak ez dituela bete, hura ez dela bideragarria edo lanak ardurarik gabe egin direla, laguntza eman zuen organoak ordura arte emandako laguntzak eta ordaintzeko daudenak bertan beherra utziko ditu, proiektua edo jarduketa zeinahi fasetan egonda ere. Gainera, ordura arte hartutako laguntzak itzultzea eskatzen ahalko du, erabaki hori onuradunari leporatzen ahal zaizkion kausengatik hartu baldin bada".

Hori dela eta, manu horretan hiru kasu azaltzen dira: a) onuradunak bere gain hartutako beharkizunak ez betetzea, b) proiektua bideragarria ez izatea eta c) lanak ardurarik gabe egitea; hiru kasu horiek eragin dezakete emandako laguntzak eta ordaintzeko daudenak bertan beherra uztea bai eta ordura arte hartutako laguntzak itzultzea ere, onuradunaren errua bada gertatutakoa.

Aurreko kasu horiek itzulketarako kausa berarizkotzat hartzeaz gain, foru dekretuak adierazten du Dirulaguntzei buruzko Foru Legeak ezartzen duen itzulketarako araubide orokorra aplikatzekoa dela, eta orain ulertu behar da Dirulaguntzei buruzko Foru Legeak ezartzen dituen kasuak ere aplikatzekoak direla. Itzulketarako kausa horiek, orokorrak deitu ahal ditugunak, aurreko atalean aztertu ditugu eta iruzkin horiek egokiak dira hemen. Azkenik, zehapen araubideari dagokionez adierazten da Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 27. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa dela aplikatzekoa.

3.- BESTE LAGUNTZA BATZUK INDUSTRIA DEPARTAMENTUAREN INGURUAN.

1.- Enplegurako laguntzak kooperatibetan eta lan sozietateetan:

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak irailaren 23an emaniko 90/2004 Foru Aginduaren bidez arauturik daude, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak urtarrilaren 20an emaniko 216/2004 Aginduaren bidez osaturik. Ministerioaren aginduak kooperatibetan eta lan sozietateetan enplegua sustatu eta lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak emateko oinarriak ezartzen ditu.

Araudi horrek laguntza mota hauek erregulatzen ditu:

- Enplegurako laguntza, langabeak kooperatibetako edo lan sozietateetako bazkide langile edo laneko bazkide bihurtzea: zenbateko aldakorrek dirulaguntza (4.000 eurotik hasita) enpresan sarturikoaren inguruabar pertsonalen arabera.

- Ibilgetu material edo ez-materialeko inbertsioetarako laguntzak: Egindako inbertsioaren % 50erainoko dirulaguntza, "minimis" arauak ezarritako zenbatekoa (100.000 euro hiru urtetan) gainditu gabe. Bi mota hauetako bat hautatu beharko da: a) Zuzeneko dirulaguntza, b) Inbertsioa finantzatzeko maileguen korrituen hobera.

- Laguntza teknikoak: Bideragarritasun azterlanak, txosten ekonomikoak eta auditoriak, zuzendari edo kudeatzaileen kontratazio mugagabea etab. Dirulaguntza izan daiteke jarduketaren kostuaren % 50erainokoa, 20.000 eurotik gorakoa izan gabe.

- Ekonomia sozialaren inguruko prestakuntza, sustapen eta zabalkunde jarduerak egitea, zuzenean enplegua sustatzearekin lotutakoak. Dirulaguntza ez da 120.000 eurotik gorakoa izanen jarduera bakoitzeko. (Honakoentzat: ekonomia soziala ordezkatzan duten erakundeak, unibertsitateak eta irabazi asmorik gabeko entitateak).

Lehendabiziko hiru laguntza motak "minimis" araubidearen mende daude. Araubide horrek ezartzen duenez, enpresa batek izaera horretako lehendabiziko laguntza eman zenetik hasita hiru urteko epean jaso dezakeen "minimis" laguntza, guztira, ez da 100.000 eurotik gorakoa izanen.

Era berean, onuraduna beharturik dago foru aginduan ezarritako beharkizunak betetzera, eta ez betetzeak ekar dezake, Dirulaguntzei buruzko Foru Legean aurreikusitako kasuetan, jasotako zenbatekoak osorik edo zati batean itzuli beharra.

2.- Lehiakortasuna hobetzeko laguntzak.

Maiatzaren 23ko 208/1991 Foru Dekretuak arautu zituen. Haren bidez Nafarroako enpresen lehiakortasun maila hobetzeko dirulaguntzen esparrua ezarri zen, politika industrialari buruzko neurriak osatu eta hobetzeko asmoz. Apirilaren 28ko 121/1997 Foru Dekretuak aldatu zuen dekretu hori.

Urtero egiten da deialdia, eta 2004ko ekitaldia Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak ekainaren 17ko 66/2004 Foru Aginduaren bidez egin zen.

Laguntza horiek erabiltzen dira hein batean diruz laguntzeko honako arlo eta jarduera hauetan kanpoko zerbitzuak kontratatzeak dakartzan kostuak:

A.- Kudeaketa sistemak (21.000 euroko dirulaguntza gehienez).

B.- Berrikuntza (gehienez ere 30.000 euro).

C.- Teknikariak gaitzea (gehienez ere 30.000 euro).

D.- Dinamizazioa eta sentsibilizazioa (irabazi asmorik gabeko entitateei zuzendua).

Dirulaguntzak, lehen aipatutako gehieneko mugekin, aholkularitza, langileen trebakuntza, auditoria eta laguntza teknikoko kanpoko zerbitzuak kontratatzeko gastuen % 25etik %70era bitartekoak izan daitezke, eta dinamizazio edo erakuste jarduerak egiten izandako gastuen % 100erainokoa izan daitezke, jarduera horien helburua berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzea izan bada.

Foru Aginduak "minimis" arauari ezartzen dion muga gehigarria da erakunde batek lehiakortasuna hobetzeko laguntzen deialdiaren babesean azken hiru urteetan jasotako laguntzen baturak, alde batera utzita dinamizazio eta sentsibilizazio jarduera, ez duela 80.000 eurotik gora egingen.

Era berean, onuraduna beharturik dago betetzera Dirulaguntzei buruzko Foru Legean ezarritako beharkizunak betetzera, eta ez betetzeak ekar dezake, arau horretan aurreikusitako kasuetan, jasotako zenbatekoak osorik edo zati batean itzuli beharra.

3.- Kanpoan ezarpen iraunkorra izateko programa:

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak apirilaren 15ean emaniko 36/2004 Foru Aginduaren bidez arautuak.

Xedea da laguntzak ematea enpresei kanpoan ezartzeko, Nafarroako Enpresa Nazioartera ateratzeko 2004ko Planaren barruan.

Dirulaguntzat hartzen dira bideragarritasun azterlanak kanpoko kostuaren % 50eraino, gehienez ere 6.000 euro enpresa bakoitzeko eta kanpoko gastuak (gastuen % 25eraino) kontzeptu hauekin: a) Enpresa berria edo egindako ezarpenean lan egiten dutenen soldadak eta gizarte segurantzaren kotizazioa; b) Merkataritza lokal eta bulegoen errentak; c) Xede-herrialdeko kanpoko aholkulariak.

Urteko dirulaguntzaren gehienekoa, proiektu bakoitzeko, 30.000 eurokoa da, eta enpresa bakoitzeko laguntzaren gehienekoa, guztira, 60.000 eurokoa da, hiru urtez gehienez jasotzeko.

Laguntzak eskatzeko deialdia arautzen duen foru aginduan eskatzen diren baldintzen artean haxe da bat: "Ezarpenak ez ekartzea berekin Nafarroako Foru Komunitateko enpresak lekualdatzea edo balio erantsiaren sorreraren galera". Deialdi hori Dirulaguntzei buruzko Foru legeak ezartzen duen arau-hausteen eta zehapenen araubidearen mende dago.

4.- Lanean aukera berdintasuna sustatzen duten inbertsioetarako laguntzak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira aktibo finko materialetan eginiko inbertsioek sortutakoak, zerikusia badute zerbitzuak, aldagelak eta antzeko gelak, emakumeentzat eta gizonezkoentzat bereizirik, eraikitzearekin edo lanpostuak edo ekipoa egokitzearekin, oztopo arkitektonikoak kentzearekin edo ezgaituentzako babes pertsonaleko neurriak ezartzearekin.

Laguntza horiek jaso ahal izateko beharrezkoa da pertsonak kontratatzea, emakumeak eta gizonak edo ezgaituak. Laguntza hori lehen aipatutako inbertsioen % 30eko dirulaguntza da eta diruz laguntzeko moduko inbertsioa ez da 30.000 eurotik gorakoa izanen, beraz gehieneko dirulaguntzak 9.000 euro egiten du.

5.- I+E kalifikazioa duten proiektuak eta enpresak bultzatzea.

Laguntza horiek Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatzen ditu eta Ministerioaren 1999ko uztailaren 15eko agindu batean daude arauturik.

Horien xedea da enplegua sortzen duten enpresa proiektuak abian jartzea, toki korporazio batek edo autonomia erkidegoko batek sustatu eta sostengatzen baditu.

INEMek finantzaturiko programa bat da, sarturik dagoena gainera eskualde anitzeko plan opera-

tiboan, eta beraz Europako Gizarte Funtsak ere parte har dezake finantzazioan.

I+E kalifikazioa Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ematen die proiektu eta enpresei eta honakoek jasotzen dute dirulaguntza: a) langabetuen kontratazio mugagabea (4.808,10 euro lanaldi osoko kontratu mugagabe bakoitzeko); b) kooperatiba eta lan sozietateei (4.808,10 euro bazkide langile bakoitzeko, langabea izan eta mugagabeko izaeraz sartzen bada); c) korrituen hobaria (sortutako lanpostu mugagabe bakoitzeko 5.108,60 euro gehienez); d) kudeaketa eta laguntza teknikoaren eginkizunentzako laguntza.

Dirulaguntza hauen zenbatekoa % 10 gehitu daiteke ekoizpena zabaltzen ari diren jarduerekin lotutako esparruetan kokatzen bada.

Dirulaguntza hauen onuradunak beharturik daude "mugagabeko izaeraz kontraturiko langileen plantilla eta kooperatiba eta lan sozietateetako bazkide langileena mantentzera gutxienez hiru urtez".

6.- Enplegurako zailtasun handiagoa duten gizataldeen laneratzea.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatzen ditu eta apirilaren 26ko 130/1999 Foru Dekretuan, aurrekoa aldatzen duen otsailaren 4ko 26/2002 Foru Dekretuan eta 1999ko uztailaren 27ko Foru Aginduan daude arauturik.

Xedea dute lan merkatutik kanpo dauden edo egoteko arriskua duten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen laguntzea, laneratze zentroek edo enpresek kontratatuz.

Laguntza hauek zuzendurik daude laneratze zentro edo enpresa horiei, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendaritza nagusiak emandako ebazpenaren bidez halakoak direla aitortua badute.

Laguntza motetan honako dirulaguntza hauek daude sarturik: Kapital finkoko inbertsioetarako, lanpostuak sortu edo mantentzeko (kostu osoaren % 85eraino, gehienez ere 12.020 euro lanpostu bakoitzeko), baztertze egoeran dauden pertsonak aldi baterako kontratatzeko, autoenplegurako eta laguntza teknikorako.

Laguntza horien onuradunak laguntzen xedea rekin zerikusia duten betebeharrak batzuen mende daude, eta horiek ez betetzeak itzuli beharra ekarri ahal izanen du Dirulaguntzei buruzko Foru Legean araututako baldintzetan.

7.- Autonomoentzako enplegua sortzeko laguntzak

Xedea da enplegua sortzea sustatzea lanik ez duten langileak autonomo gisa laneratuz. "Minimis" izaerakoak dira, eta beraz Batzordeak urtarilaren 12an emaniko 69/2001 (EE) Erregelamenduan ezarritako baldintzen mende daude.

Laguntza hauek eskuratzeko baldintzak hauek dira:

1. Langabezian egotea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan edo/eta Gizarte Segurantzaren Araubide Berezian alta emateko egunean.

2. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emateko egunaren aurreko 6 hilabeteen eta ondoko bi hilabeteen barrenean inbertsioak egin izana Foru Komunitatearen barruan, gutxienez 12.020,00 eurokoak eskatzaile edo bazkide bakoitzeko, lokal, instalazio, makineria, ibilgailuen konzeptuetan edo softwarean.

Laguntzaren zenbatekoa 3.610 eurokoa da pertsonako, eta 300 euro gehituko zaizkio 40 urtetik gorakoa edo emakumezkoa izateagatik.

Laguntza hauen onuradunak dirulaguntza eskabidea oinarritzeko erabili ziren aktibo finko material berdinak edo antzekoak mantendu behar dituzte; urtero, 37 hilabeteko epean, diruz lagundutako autonomoak Nafarroako Enplegu Zerbitzuan ziurtagiriak edo egiaztagirak aurkeztu behar dituzte frogatzeko egunean dagoela JEZaren, autonomoen araubide bereziaren edo kasuan kasuko lanbide elkargoaren ordainketan.

Betebehar horiek ez betetzeak emandako dirulaguntzak bertan behera utzi edo baliogabetzea ekarriko du, eta egiaz jasotakoa Nafarroako Ogasunari itzuli beharra baliogabetzea jakinarazi eta hilabeteko epean.

Laguntza araubide hau autoenpleguari zuzentzen zaio, eta berarekin dakar hura mantendu beharra 37 hilabetez; ez bada betetzen emandako laguntzaren zati proportzionala bertan behera utzi edo baliogabetzea ekarriko du, salbu eta egiaztatzen bada onuradunari ez dagozkion arrazoiek eragin dutela uztea.

4.- ITUNAREN I. ERANSKINEAN SARTU GABEKO NEKAZARITZAKO PRODUKTUAK ERALDATU ETA MERKATURATZEKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIENDAKO INBERTSIO ETA ENPLEGURAKO LAGUNTZAK.

Araudia: Foru Agindua, 2001eko uztailaren 2koa, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak emana, azaroaren 20ko 361/2000 Foru

Dekretua, maiatzaren 14ko 117/2001 Foru Dekretuak aldatu zuena, aplikatu eta garatzen duena.

Foru agindu honetan sarturik daude Batzordearen 2000ko uztailaren 28ko 1685/2000 Erregelamenduak (EE) eskatzen dituenak, finantzazioan egiturazko funtsen laguntza duten operazioen gastuak finantzatzeari dagokionez Kontseiluaren 1260/1999 Erregelamendua (EE) aplikatzeko xedapenak ezartzen dituenak. Erregelamendu horrek, operazio mota zehatz batzuen kasuan, arau komun batzuk ezartzen ditu gastu bat diruz laguntzeko modukotzat hartzeko.

Xedea: elikagaien industriak egindako inbertsio proiektuendako laguntzak, ekoizpeneko inbertsioa eta lanpostu berriak sortzea bultzatuz.

Laguntzak eskuratu ahal izateko, gutxieneko inbertsioak 150.000 eurokoak izan behar dira. Halere, enpresa txiki eta ertainen kasuan, gutxieneko inbertsioa 36.000 eurokoa izan da, non ez den nekazaritzako elikagaien artisautza-enpresa bat edo horrelako enpresen elkarte bat, halakotan gutxieneko inbertsioa 12.000 eurokoa izan da baita. Lehentasuna emanen zaie, besteak beste, ezarpen berriko proiektuei, ekoizpen prozesuarekin zuzeneko lotura duten inbertsioak eta norberaren baliabideak jartzea, proiektuaren kostuaren % 50 baino gehiago egiten badute.

Gehieneko dirulaguntza gordina, oro har, ezarpen industrial berriko proiektuetan eginiko inbertsioaren % 22koa izan da eta % 20koa handitu edo hobetzeko proiektuetan. Gutxieneko dirulaguntza % 14koa eta % 12koa izan da, hurrenez hurren.

Nafarroako Gobernuaren interes bereziko proiektu deklaraturakoen kasuan laguntzen gehieneko zenbatekoak izan dira Erkidegoko araudiak laguntza mota honetarako ezarritakoak.

Dirulaguntza 3.005,06 eurokoa izan da sortutako lanpostu mugagabe bakoitzeko, aurreko egoerarekin alderatuta plantillaren gehikuntza gertatzen denean. Nolanahi ere, enplegua sortzea edo sendotzea inbertsiorako laguntzak jasotzen dituzten inbertsioen ondorioa izan behar da.

Laguntzen onuradun diren enpresek konpromisoa hartzen dute, besteak beste, dirulaguntzaren xede izan diren ondasunak 5 urtez gutxienez edo balio bizitza osoan, txikiagoa bada hirugarrenei ez eskualdatu, errentan eman edo lagatzeko erabil dezaten.

5.- INBERTSIORAKO LAGUNTZAK ARRANTZAREN ETA AKUIKULTURAREN SEKTOREE-TAN.

Araudia: 2001eko abuztuaren 13ko Foru Agindua, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak emana.

Xedea: Arrantzaren eta akuikulturaren sektoreetako industriek egindako inbertsio proiektuetarako laguntzak.

Akuikulturaren esparruan honako helburu hau-ekin egindako inbertsio materialak diruz laguntzeko modukoak dira:

a) Instalazioak eraiki, zabaldu, modernizatu eta hobetzea eta b) Osasun eta higieneko edo/eta ingurumeneko baldintzak hobetzea.

Arrantza eta akuikulturaren sektoreko produktuak eraldatu eta merkaturatzea sustatzeari dagokionez, dirulaguntzak eman ahal izanzen zaizkie sorburuan eta helburuan handizka merkaturatzeko eta arrantza eta akuikulturako produktuak eraldatzeko egindako inbertsioei.

Diruz lagundu daitezkeen gastuekiko, ez da zilegi izanzen emandako laguntza osotara (IFOPe-na gehi Nafarroako Gobernuarena) % 40 baino gehiagokoa izatea.

Onuradunen betebeharrak

Laguntzen onuradunek honako beharkizun hauek bete beharko dituzte:

a) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari bide ematea, inbertsioak gauzatu ondoko bost urteetan, eskatzen zaion adina ikuskatze, datu, eta irizpen gaiak egiteko, espedi-

entea tramitatu eta aurkeztu proiektua benetan gauzatu dela eta hartutako konpromisoak bete direla konprobatu ahal izateko.

b) Bere kontabilitatean edo erregistro liburutik jasota laguntza kobratu dela erregistratzea.

c) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan frogatzea jasotako funtsak laguntza emateko arrazoi izan ziren helburuetarako erabili direla, jarritako epe eta moduan.

Laguntza emateko ebazpenaren aldaketa eta errebokazioa.

1. Aurreko artikulua aipatu duen bost urteko epe hartan agertzen bada desbideratze handiak izan direla kontu, balantze eta egoera finantzarioetan, hasierako aurreikuspenetatik, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak zilegi izanen du emandako laguntzen zenbatekoa errebitsatzea.

2. Negozioa ixteagatik enpresaren jardueraren eten bada, lana sei hilabete baino gehiagoan gelditzen, enpresa Nafarroatik lekutzen, krisi espediente sortzen, lanpostu edo lanaldi erregulazioa egin edo enpresak pagu etena edo kiebra egiten badu, zilegi izanzen da emandako laguntzak erabat edo partez murriztea, eta hala bide denean Nafarroako Ogasun Publikoari lehendik jasotako diru guztia itzularaztea gehienez hilabete epean, betiere egoera horiek laguntzak emateko ebazpena eman ondorengo bost urteetan gertatzen badira. Nolanahi ere, enpresa beharturik dago Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari aipatu gorabehera horiek guztiak idatziz adieraztera, gertatzen diren orduko.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urtebete 42,35 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
--	---